

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko apirilaren 30ean

30 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Toki Sektoreari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egin (2. or.).

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Toki Sektoreari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Nafarroako Toki Sektoreari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldiari dagokiona, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Toki Sektoreari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldiari dagokiona, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (2. or.).
- II. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- III. Nafarroako toki sektore publikoko egitura eta azterketa orokorrak (5. or.).
- IV. Arautzeko lege esparrua (6. or.).
- V. Ondorioak eta gomendio orokorrak (7. or.).
- VI. Finantza-egoerak 1995-XII-31n (13. or.).
 - VI.1. Udalen eta kontzejuen 1995eko aurrekontuen kitapen ekonomikoa. (13. or.).
 - VI.2. Mankomunitate eta udal-elkarteen 1995eko aurrekontuen kitapen ekonomikoa (14. or.).
- VII. Egindako lanen azterketa (15. or.).
 - VII.1. Fiskalizazio txostena (15. or.).
 - VII.2. Laburpen-fitxak eta kontratu-fitxak (xx. 17.).
 - VII.3. Lege esparrua (17. or.).
 - VII.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa (xx. 19.).
 - I. Udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren betetzea (19. or.).

II. Mankomunitate eta udal elkarten 1995eko aurrekontuaren betetzea (xx. 21.).

III. Zorpetzea (23. or.).

IV. Azterketa ekonomiko eta eginkizunen araberakoa (25. or.).

VII.5. Eginkizunen araberako galdesorta (xx. 27.).

VII.6. Udalen eta kontzejuen egoera ekonomikoaren adierazle nagusiak (39. or.).

Eranskinak.

I. eranskina. Entitateen zerrenda, toki entitateen egoera ekonomikoaren adierazle nagusien araberakoa (42. or.).

II. eranskina. Udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren kitapena, biztanleriaren araberakoa (xx. 52.).

- 5.000 biztanle baino gutxiagokoetan.
- 5.000 eta 50.000 biztanleen artekoetan.
- 50.000 biztanle baino gehiagokoetan.

III. eranskina. 1995eko aurrekontuaren betetzeari buruzko eta 1992-1994ko ekitaldiei buruzko informaziorik bidali ez duten toki entitateen zerrenda (55. or.).

4. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (59. or.).

I. HELBURUAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritik, 1995eko ekitaldiari dagokion Nafarroako toki sektoreko txostena egiteari ekin zaio.

Txosten hau egiten duelarik, Kontuen Ganbarak ondoren aipatzen diren helburuak lortu nahi ditu:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (aurrerakoan TAFL) 350. 2 artikulua esaten duena betetzea, ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari Kontuen Ganbarak toki esparruan egin dituen jarduketan berri ematen duen Txosten-laburpena.

2. Parlamentuari, Administrazio Publikoari eta Nafarroako iritzi publikoari Nafarroako Toki Entitateen barne-antolamenduari eta egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi bat ematea, baita bere jardura legezotasun-hatsapenari egoki zaion edo ez, Kontuen Ganbara honek xede horretarako programatu dituen lanen arabera.

3. Kontuen Ganbara Nafarroako Toki Erakunde guztietan egon egongo dela eta jardun jardungo duela, bere jarduketa egitarauaren arabera, bermatzea.

4. Parlamentuari eta Nafarroako Administrazio Publikoari proposatzea, hala badagokio, Toki Entitateen kudeaketa hobetzea ahalezko egingo duen neurri multzo bat aurrera eraman dadin.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK.

1995eko ekitaldiko Nafarroako Toki Sektore Publikoari buruzko lanaren norainokoa ondorengo hauek zehazten dute:

- Ekitaldian eginiko fiskalizazio txostenak.
- Ganbarak jaso dituen kontratuen laburpen-fitxek legezotasuna betetzen ote duten ikusteko egin den azterketa.
- Toki entitateen egoera ekonomikoa 1995eko ekitaldian.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalbatzei eginkizunen arabera galdesorta igorri izana.

Lehen esandako guztia bi azterketa gehiagorekin osatzen da, 1995eko toki sektore publikoaren egiturari buruzkoa bata (txosten honetako III. atala) eta toki entitateak arautzen dituen lege-esparruari buruzkoa bestea (IV. atala).

Halaber, lau eranskin gaineratzen dira:

- Entitateen zerrenda, toki entitateen egoera ekonomikoaren adierazle nagusien arabera.
- Udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren kitapena, biztanleriaren arabera.
- Txosten hau igortzen den egunean Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuari 1995eko aurrekontuaren betetzeari buruzko eta 1992-1994ko ekitaldiei buruzko informaziorik bidali ez duten toki entitateen zerrenda.

- Txostenean erabilitako adierazleen definizioa.

Ondoren garatuko ditugu eta zehaztuko lehen esandako gorabeherak eta inguruabarrak.

II.I. NORAINOKOA.

II.1.1. Fiskalizazio txostenak.

Kontuen Ganbarak 1996ko ekitaldirako zeukan urteko egitarauaren arabera, ondoren aipatzen diren toki entitateen kontuak fiskalizatu ziren:

a) Udalak

Udala	Biztanleak	Aurrekontuaren betetzea (milakakoetan)	
		Gastuak	Dirusarrerak
Lesaka	2.742	395.426	395.684
Bera	3.539	461.311	493.624
Fitero	2.124	278.066	285.539
Cintruénigo	5.483	487.831	478.903
Corella	6.470	696.967	678.400
Baztan	8.053	684.125	637.568
Guztira	28.411	3.003.726	2.969.718

Biztanleriari dagokionez, kopuru hauek Nafarroako Foru Komunitateko biztanleria guztiaren ehuneko 5,3 egiten dute (536.192 1995/1/1ean), eta fiskalizatutako aurrekontuak udal eta kontzeju guztien ehuneko 6,8 egiten du.

Aztertu dira, baita ere, lehen esandako toki entitateen menpeko diren patronatu eta erakunde autonomoen kontuak. Honako hauek, zehatz esanda:

Erakunde autonomoa/ Patronatua	Toki Enti.	Aurrekontuaren betetzea (milakakoetan)	
		Gastuak	Dirusarrerak
Zaharrentzako egoitza	Lesaka	35.713	38.760
Musika Eskola	Bera	21.142	20.476
Junta de aguas	Cintruénigo	43.283	38.818
Zaharrentzako egoitza	Cintruénigo	83.499	79.571
Zaharrentzako egoitza	Corella	42.415	40.496
Zaharrentzako Egoitza	Baztan	146.771	148.234
Ikastola	Baztan	51.268	50.489
Guztira		424.091	416.844

Aipatu ditugun fiskalizazio oso hauetaz gainera, udalek berek eskatuta, Luzaideko Udalaren, Pitillasko Etxe-eskola egokitzeko eraikuntza lanen eta Erroibarko Udalaren kontuen berrazterketa mugatuko txostena. Halaber, 1996ko ekitaldian, Kontuen Ganbarak toki sektoreari buruz eginiko

txosten guztietatik atera daitezkeen gomendioei buruzko laburpen-txostena egin zuen.

II.1.2. Toki entitateek bidali dituzten kontratuen laburpen-fitxak.

Uztailaren 2ko 6/1990 Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 232. artikulua eta azaroaren 14ko 13/1986 Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko Foru Legeko 133.2 artikulua ezartzen dutena betez, Nafarroako toki entitateek, 1995 urtean zehar, legez ezarritakoa baino kopuru handiagoko kontratazioari buruzko 5 fitxa-laburpen igorri zizkioten Kontuen Ganbarari, hau da, 100 milioi pezeta obra-kontratu edo eta zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratuen kasuan, lehiaketaren bidez edo enkantearen bidez esleituak direnean, edo 50 zuzenean esleitzen direnean, edo 25 milioi lehenak bezalakoak ez diren beste hainbat administrazio kontratuen kasuan.

II.1.3. Nafarroako toki entitateen egoera ekonomikoa 1995-XII-31n.

Alor honetan egin dugun lanak ondoren aipatzen direnak izan ditu ardatz:

- Mankomunitate eta udal elkarten 1995eko aurrekontuaren betetzearen azterketa.
- Nafarroako udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren betetzearen azterketa.
- Toki entitateen zor biziaren azterketa.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalen aurrekontuaren betetze eginkizunen arabera eta ekonomikoa.
- Udal eta kontzejuen egoera ekonomikoari buruzko azterketa, zenbait adierazletatik abiatuta.

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari Departamentuak eman dizkio Kontuen Ganbarari Udal eta Kontzejuen zor biziaren eta aurrekontuaren betetzeari buruzko datuak.

II.1.4. Galdesortak.

1994 eta 1995 urteetan zehar udalbatzetan gertatzen ari den kontabilitate-sistemaren aldaketak ahalaz egin du aipatu galdesortak beste modu batez antolatzea, kontabilitate-planak ematen duen informazio berriari esker aztertu ahal direlarik udalbatzek ematen dituzten zerbitzuak eta beren kostua.

Hori dela-eta, eginkizunen arabera galdesortak bat prestatu da, ondoko zerbitzuak aztertzen dituenak:

- Izaera orokorreko zerbitzuak.

- Herri babesa eta hiritarren segurtasuna.
- Gizarte sustapena.
- Gizarte izaerako ondasun publikoen ekoizpena.
- Dirusarreren kudeaketa.

II.2. MUGAK.

Txosten hau egitean eragina izan duten mugak hauek izan dira:

- Kontuen Ganbarak Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitate guzti guztiak fiskalizatu ezin izateak mugatzen du toki sektore publikoaren gaineko ikuspegi orokorra eskaintzearen helburua.

• Indarreko arauterik eskatzen ez duelarik ondare-kontabilitaterik, eta, ondorioz, egoera balantzerik, guretzat zinez zaila da fiskalizatutako toki entitateen ondare egoerari buruzko iritzirik ematea.

• Eginkizunen arabera galdesortatik lor daitezkeen informazioa ezin izan alderatu. Hori dela eta, erantzunak transkribatzeko orduan egindako akatsak egon daitezke ateratzen diren emaitzetan. Beste aldetik, adierazi behar da udalen tamaina ezberdinak eragin handia izan duela planteatutako galdera askotan. Horrela bada, esan behar da galdera batzuetan Iruñak duen pisua oso nabarmena dela gainerako udalek daukatenarekin alderatuta.

• Nafarroako toki sektore publikoaren 1995eko egoera ekonomikoa eta aurrekontuaren betetzeari buruz eskura daukagun informazioa ez da osoa, ondoren aipatzen diren arrazoiengatik, batez ere:

a) Udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren betetzeari buruzko informazioak entitate horien ehuneko 71 harrapatzen du, harrapatzen duen biztanleria Nafarroako ehuneko 94 bada ere.

b) 1995eko mankomunitateen aurrekontuaren betetzeari buruzko informazioak 38 mankomunitate harrapatzen ditu, eta honek guztiaren ehuneko 72 egiten du, azpimarragarrienak biltzen baditu ere.

c) Zor biziari buruzko datuak biztanleriaren ehuneko 95,4 harrapatzen duten udal eta kontzejuen gainekoak dira.

d) Udalbatzek Ganbarari bidali dizkioten kontratu-fitxek ematen duten informazio txikiak legez-kotasuna behar bezala aztertzea galarazten du.

Lan hau egiterakoan eman diguten laguntza dela eta, eskerrik bizienak eman nahi dizkiegu

Nafarroako Toki Entitateetako langileei, Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioako Departamentukoei, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federakundekoei eta Nafarroako Toki Idazkaritzaren Elkargo Ofizialekoei.

III. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKO KOKO EGITURA ETA AZTERKETA OROKORRA.

Lehengo ekitaldiarekin alderatzen badugu, 1995eko ekitaldian zehar izan diren aldaketak, 1996ko urtarrilaren 1eko enteen erroldaren arabera, ondoren aipatzen direnak dira:

a) Udalak

Aurreko urtearekin alderatuta, Lekunberri Udalaren alta azpimarratu behar da. Izen bereko kontzejua deuseztu da.

b) Kontzejuak

1995 urtearen bukaeran 369 kontzeju daude, ondokoak deuseztu direlako:

- Lekunberriko kontzejua
- Lizarragako kontzejua
- Mutiloagoitiko kontzejua

c) Erakunde autonomoak

1995eko ekitaldiaren bukaeran 52 erakunde autonomo administratibo zeuden. Aurreko ekitaldikoek gainera ondokoak daude:

- Buñuelgo San Gregorio zaharretzea.
- Cadreitako Kiroletako Udal Kontseilua
- Corellako zaharretxea.
- Fiteroko San Raimundo egoitza

b) Mankomunitateak

1995 urteko bukaera aldera dauden mankomunitateak 53 dira, eta aurreko urtearekin alderatuz,


Bi berri sortu dira:

- . Arraiozko Ur Mankomunitatea.
- . Zaraitzu-Nabaskoze Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Ondokoa deuseztu da, beste batean sartu delako:

- . Malerrekako Hondakin Solidoen Mankomunitatea

Beraz, Nafarroako toki sektore publikoko egitura, 1994ko ekitaldian, ondorengo koadroan ikusten dena da:



Biztanleriaren araberako udal-sailkapena eta gainerako elkarteetako toki entitateek eginiko jarduerari dagokienez, aurreko ekitaldietako txostenetan ematen ziren ondorioak indarrean daude. Hau da, udalek ehuneko 6k baino ez ditu 5.000 biztanle baino gehiago, eta mankomunitateek ematen dituzten zerbitzuak funtsean uraren ziklo osoa, hiri hondakin solidoen tratamendua eta oinarrizko gizarte zerbitzuak dira.

Laburbilduz, 1995eko abenduaren 31ko toki sektore publikoaren osaketa, eta bere konparazioa, zenbakiz, aurreko ekitaldiarekin ondorengo laukian ikusten dena da:

Toki sektore publikoa	1994	1995
Udalak	271	272
Kontzejuak	372	369
Mankomunitateak	52	53
Elkarte tradizionalak	9	9
Erakunde autonomoak	48	52
Merkataritza elkarteak	9	9

Ikusten ahal denez, 1995eko ekitaldi honetan mankomunitateen eta erakunde autonomoen zenbakiak gora egiten segitzen du, eta Gobernuaren zein Udal Federakundearen aldetik ekimenak aurrera eramaten ari badira ere, oraindik ez da kudeaketa eta zerbitzu emateak arrazoiz taxutuko dituen udal mapa eratu, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen filosofiarekin bat etorritz.

Egoera hau, lehengo txostenetan aipatu izan dugun bezala, ekartzen ari dena da, ezen, Nafarroako zonalde bakoitzean sortzen ari direla, dagokion kontzeju eta udalaz gain, toki entitate independenteen elkarteak, zerbitzuak eman ahal izateko, baina zerbitzu hauek eskualdeka eta entitate bakar batean emateak dakarren kostu ekonomikoa eta egokia ote den aztertu gabe, sortzen ari delarik erakunde multzo bat, zenbait kasutan, funtzioari dagokionez, elkarren gainean suertatzen direnak.

Guzti honi erantsi behar zaio mankomunitateak berak, kudeaketa arintzeari buruzko arrazoiak emanez, zerbitzua emateko elkarte instrumentalez hornitzen ari direla, sortzen ari delarik, beraz, antolamendu egitura bikoitza, horietako bakoitzaren eginkizunak zeintzuk diren erabat zehaztu eta mugaturik ez daudelarik.

IV. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 1995EAN ARAUTZEN DITUEN LEGE ESPARRUA.

1995eko ekitaldian zehar Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea onetsi da. Foru Lege hori, gehien bat, 1996an sartu da indarrean, salbu Toki Ogasunek Nafarroako Aurrekontuetan daukaten Partaliertza Fondoa arautzeari dagokiona, izan ere legearen azken xedapenetako bigarrenari jarraituz 1995eko urriaren 1ean sartu baitzen indarrean.

Nafarroako Foru Komunitateak badauka bere gisako arauteria Toki Administrazioaren alorrean, Konstituzioak babesten dituen eskubide historikoen ondorioa dena, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikulua ezartzen duen moduan, ondoren laburki adierazten den bezala.

IV.1. TOKI ERREGIMENA ARAUTZEN DUEN LEGEDIA OROKORRA.

Toki erregimena arautzen duen legedia orokor gisa, ondorengo aipa dezakegu:

- 6/90 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (TAFL).
- 7/85 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituena.

- 781/86 Errege Dekretu legegilea, apirilaren 18koa, Toki Erregimenean indarrean dauden lege-xedapenen Testu Birbildua onartzen duena, gehienetan foru arauteriaren osagarri eta ordezkagarri izango dena.

IV.2. AIPATUTAKO LEGEDIA ETA GERO, ETA HORREN MENPE, HONEN ONDOREN DATORREN LEGEDIAK IZANGO DU INDARRA, JARDUKETA-ALOR EZBERDINETAN.

a) Antolamendu eta funtzionamendua, administrazio jardunbide orokorra eta toki egintzak kontrolatzeko eta aurkatzeko erregimena:

- Toki Entitateen Lege Erregimen, jardunbide eta Antolamenduari buruzko Erregelamendua (azaroaren 28ko 2586/86 Errege Dekretuak onartua).

- Nafarroako Toki Entitateen erabakiak eta egintzak aurkatzeari buruzko Erregelamendua, urriaren 18ko 279/90 Foru Dekretuak onartua.

b) Langileria:

Funtzionario mota jakin baten estatutu erregimen berezian kaltetan gabe, martxoaren 30eko 13/83 Foru Legea azpimarratu behar da, Nafa-

roako Administrazio Publikoen zerbitzupeko Langileriaren Estatutua arautzen duena, eta berau garatzen duten Erregelamenduak.

- Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua 251/1993, abuztuaren 30eko 251/93 Foru Dekretu legegilearen bidez onetsia.

c) Kontratazioa:

- Azaroaren 14ko 13/86 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei buruzkoa (KFL).

- Apirilaren 25eko 161/91 Foru Dekretua, laguntza teknikoko kontratuak arautzen dituena.

- 1995etik aurrera, aplikatzekoa den gaitarako, aintzat hartu behar da Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legea.

d) Ondasunak:

- Nafarroako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua, urriaren 18ko 280/90 Foru Dekretuak onartua.

e) Toki Ogasunak:

- 1995eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea, batez ere toki erakundeen Partaliertza Fondoari buruzko guztiarekin, eta berau banatzeko sistemarekin.

- Toki Ogasunak erreformatzeko Araua, 1981ko ekainaren 8koa, eta garapen Erregelamendua, 1981ko abenduaren 17koa.

- Hainbat zerga-irudi zehatz arautzen duen araudia: hiri kontribuzioa, nekazaritza eta abeltzaintza mailako jarduerari buruzko kontribuzioa eta lizentzia fiskalari buruzkoa.

- Toki Ogasunen Saneamendua dela-eta Nafarroako Gobernuaren lankidetzak ekonomikoa arautzen duen azaroaren 13ko 15/1989 Foru Legea.

- Dirubiltetarako Erregelamendu Nagusia, abenduaren 20ko 1687/90 Errege Dekretuak onartua.

- Martxoaren 10eko 2/95 Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, 1996ko urtarrilean indarrean sartu zena, salbu Fondoari dagokion araupetzea, izan ere 1995eko urrian sartu behar baitzen indarrean.

Orain arte deskribatu den lege esparrua ulertu behar da erakunde bakoitzak dituen Ordenantza eta Erregelamenduen kaltetan gabe, eta toki entitate jakin batzuetan indarrean dauden erregimen berezien kaltetan gabe; kontuan hartu behar izango da, baita ere, Administrazio Publiko guztiei

aplikagarri zaien legedia orokorra eta jarduketa publikoaren zenbait alor arautzen duen sektoreko legedia.

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Atal honetan, 1995eko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko ikuspegi orokorra emateko egiten zen txosten orokor honetarako programaturik zeuden lan guztietatik lortu diren ondorioak eta gomendio orokorrak biltzen ditugu.

Horrela, ondokoak aipatuko ditugu: ekitaldian zehar egindako fiskalizazio txostenetatik ateratzen direnak, kontratazio alorrean legezketasuna bete ote deneko azterketa, Nafarroako toki entitateak arautzen dituen lege esparrua eta azkenik 1995eko ekitaldiko egoera finantzarioaren azterketa ekonomikoa.

Ondorio eta gomendio hauek garatzen era zabalagoz dira txosten honetako VII. atalean.

I. LANKIDETZA.

Nafarroako toki entitateek lankidetzak maila handia eskaintzen diote Kontuen Ganbarari honek fiskalizazio-lan zehatzak egiten dituenean.

Hala ere, kontratazio alorrean, eta TAFLko 232. artikularekin (VII.2. Atala) bat etorritik, gutxi dira 1995eko urtean esleitutako kontratuen fitxalaburpena Kontuen Ganbarari bidaltzeko betebeharrak betetzen duten toki entitateak.

II. EGINDAKO FISKALIZAZIO-LAN EI BURUZKO IRITZIAREN LABURPENA.

1995eko aurrekontuaren garapena eta bete-tearen gaineko txostenetan ageri den iritziak dio, kasu guztietan, egindako eragiketen multzoa behar bezala eta arrazoiz adierazita dagoela.

Ondare egoerari dagokionez, udalak sektore publikoari egokitutako Kontabilitate Plan Orokor berria ezartzekotan dabiltza. 1995 urtean 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udal zein mankomunitaterik garrantzizkoenetara zabaldu da. 1995ean fiskalizaturiko entitateetatik hiruk, 5.000 biztanle baino gutxiagokoak direnak, ez dute ondarearen kontabilitaterik; horrek galarazten digu haien ondarearen egoerari buruzko iritzia ematea. Kontabilitate Plan Orokorra ezarri duten hiru udaletatik, Corellan eta Baztanen norainokoaren mugek iritzia ematea galarazten digute; Cintruénigoko Udaleko kontuek, berriz, era arrazoizkoan islatzen dute 1995eko abenduaren 31n ondareak zuten egoera.

III. LEGEZKOTASUN-HATSAPENAREN BETZETZEA.

Aztertutako toki entitateen jardura ekonomiko eta legezketasun-hatsapenari loturik ote dagoen, kontratazioaren, langileriaren, zergaren, hirigintzaren eta kontabilitate-aurrekontuaren alorrean ez betetzeak gertatu direla atzeman da, fiskalizatutako erakunde bakoitzaren txostenean zehazki aipatzen direnak.

Gainera, udalek igorri dizkiguten kontratuen fitxa-laburpenetik abiatuak, kontratazio publikoak aztertu dugu (txosteneko VII.2 atalak).

1995ean Nafarroako toki entitateek Kontuen Ganbarara bidalitako fitxak bost izan dira, guztira. Horietatik lau obra kontratuei buruzkoak ziren eta bestea zerbitzu publiko baten kontratazioari buruzkoa. Fitxa horietan eta eskatutako dokumentazio osagarrian bildutako informazioa aztertuta, ez da indarreko legedia hautsi denik antzeman, salbu espedienteetako batean, non derrigorrezkoak diren txosten juridikoa eta ekonomikoa eta zuzeneko kontrataziora jotzeko larritasunaren justifikazio nahikoa ere, horretarako zilegizko arrazoiak izan zitekeena, falta baitira.

IV. UDALBATZEN EGINKIZUNEN ARABERAKO GALDESORTA.

Ondotik ematen dugu 5.000 biztanle baino gehiago dituzten 15 udalei –guztira 326.908 biztanle– bidalitako eginkizunen araberako galdesortatik atera daitezkeen datu eta ondorio nagusiak. Ondorioak zerbitzuen araberako multzotan jarri dira eta luzeago azaltzen dira VII.5. atalean.

Mugei buruzko atalean adierazi den bezala, ez dugu aukerarik izan galdesortatik atera diren datuak alderatzeko; askotan, Iruñeko Udalak udal horien multzoan daukan eraginak gora-beherak sortzen ditu datu horietan.

Zalantzarik gabe, datu eta informazio horien guztien erabilgarritasuna nabarmen handiagoa izanen litzateke beste komunitate batzuetan antzeko daturik egongo balitz.

a) Izaera orokorreko zerbitzuak.

1. Udal guztietan udalbatzako kideek ordainsariak jasotzen dituzte, zinegotzi bakoitzak, batez beste, 545.528 pezeta urtean.

639 pezetakoa da urteko batezbesteko gastua biztanle bakoitzeko, asignazioak, soldatak eta dietak direla-eta.

2. 1995ean 131 ohiko osoko bilkura egin dira eta 157 osoko bilkura berezi. Udaletako ehuneko

67an osoko bilkura berezi gehiago dago ohiko osoko bilkura baino.

3. 1995ean indarra zuten laguntza teknikoko, hornidurako eta zerbitzuen kudeaketako kontratuak hauek ziren:

Esleipen sistema	zk.	%	Zenbatekoa	%
LEHIAKETA	Laguntza teknikoa	38	686,6	
	Hornidura	14	181,3	
	Kudeaketa	21	945,9	
		73	1.813,8	68
ZUZENA	Laguntza teknikoa	224	567,9	
	Hornidura	76	232,2	
	Kudeaketa	10	60,2	
		310	860,3	32
GUZTIRA		383	2.674,1	100

4. 1995ean 100 obra-kontratu esleitu ziren, 3.012 milioi pezetatan. Zenbateko horretatik ehuneko 70 lehiaketaren bidez esleitu zen.

5. 94/1/1 eta)5/12/31 bitartean bukatutako 50 milioi baino gehiagoko 19 obrek 4.218 milioiko lizitazio prezioa izan zuten, eta 3.702 milioi pezetatan esleitu ziren, alegia ehuneko 12ko bajarekin. Haien amaierako burutzapena 4.100 milioikoa izan zen. Beraz esleitutako zenbatekotik ehuneko 11 garestiago.

Hau da, obrak burutzean izandako gehikuntzek ia konpentsatu egiten dituzte esleipenetako bajak.

6. 15 udal hauek 23 patronato, 13 erakunde autonomo eta lau sozietate publiko sortu dituzte. Horiek guztiak mankomunitateren baten barruan daude.

7. 2.255 ziren 95/12/31n udal hauetan lan egiten duten pertsonak. Horietatik ehuneko 57 funtzionarioak ziren.

1.846 enplegaturen maila ezagutzen dugu. Hori aztertuta atera daitezkeen ondorioa da ehuneko 6 A mailakoa dela; ehuneko 12 B mailakoa; langile gehienak D mailakoak dira, ehuneko 50.

8. Karrerako funtzionario batek betetzen du idazkari lanpostua 13 entitatetan; gainerako bietan behin-behineko langile batek eta lan kontratatu batek.

Lanpostu horrek mailari dagokion soldataz gaineko ehuneko 59ko lansari osagarriak jasotzen ditu, batez beste.

Zortzi udaletan, idazkariak ez dute eskusibitate edo bateraezintasun osagarriak.

9. Kontuhartzaile lanpostua A eta B mailako langileek bete dezakete. Hamabi udaletan pertsona bat dago kontuhartzaile lanak egiten dituena; horietako batean C mailako langile bat, berariaz gaitua. Gainerako hiruetan idazkari-kontuhartzai-leak daude.

Ematen zaien batezbesteko osagarriak beren mailako soldataren ehuneko 50 egiten du.

10. Orokorrean, informatizatuta daude udalaren kudeaketa administratiboaren alor nagusiak.

11. Aurrekontuak, kasu guztietan, 94/12/31 baino beranduago onetsi ziren.

Hamahiru kasutan kontuak ekainaren 1a baino beranduago aurkeztu dituzte kontuak kontuetako batzordean, nahiz eta hori den legeak ezarritako berandueneko eguna.

12. Orokorrean esan daiteke aseguru polizak egoten direla oinarritzko arriskuetatik babesteko, nahiz eta bi udaletan ez dauden aseguraturuta udaleko kideen istripuak eta udal batean berdinean enplegatuen istripuekin. Dena den, adierazi behar da Toki Administrazioiko Departamentuak hautetsi guztientzat egindako poliza orokor bat.

b) Herri babesa eta hiritarren segurtasuna.

13. Entitate guztiek, batek ezik, udaltzaingoa dute. Guztira 546 agente daude. Guztietan gaueko txanda ere egiten da.

14. Guztira ezarritako 32.257 trafiko isunetatik, ehuneko 82 kapitalean jartzen dira. Kobraturiko zenbatekoa likidaturiko guztizkoaren ehuneko 18 da.

c) Gizarte sustapena.

15. Udal guztiek beren gizarte zerbitzuak ematen dituzte. Horretarako 160 pertsona enplegatzen dituzte. Urteko kostua 1.263 milioikoa da, hau da, 3.930 pezeta biztanleko.

Zerbitzu hauetan 14.642 eskaera jaso zituzten zortzi udaletan, hau da, 1.000 biztanleko multzo bakoitzetik 176. Horietatik 31 informatu ziren.

16. Beste entitate batzuekin izandako lankidetzaren bidez 213 kontratu egin ziren enplegua sustatzeko. Horien kostua 146 milioikoa izan zen; horietatik udalek ehuneko 85 jaso zuten dirulaguntzen bidez. Lau udaletan hitzarmenak sinatu dituzte gizarte eta lan alorreko bergizarteratze lanetarako. 42 pertsona bildu ziren hitzarmen horietara.

d) Gizarte izaerako ondasun publikoen ekoizpena.

17. Udal hauetan lehen hezkuntzako 101 ikastetxe daude; horietatik 58 publikoak dira eta 43 pribatuak. Ikastetxe horiek 1.286 milioiko gastua sortzen diete udalei (zenbateko horretatik diru gehiena ikastetxe publikoentzat da). Ikastetxe publikoetan 252 enplegatu daude.

Bederatzi udaletan dauden haurtzaindegietan 169 langilek egiten dute lan. Zerbitzu horretako batezbesteko kostua 2.023 pezetakoa da biztanleko; haurtzaindegi horiek kostu horretako ehuneko 49 beren dirusarreraren bidez lortzen dute.

18. Bederatzi udalek HAPOa dute eta gainerako seiiek Arau Subsidiarioak dituzte.

Horien onespina edo azken berrikuspena azken bost urte hauetan egin da zortzi udaletan; lau udaletan duela bost urtetik hamar urte bitartera eta bi udaletan duela 10 urte baino gehiago. Kasu batean ez da data hori adierazten.

19. 1995ean 1.742 etxebizitza publiko bukatu ziren eta 3.028 etxebizitza pribatu. Zizur Nagusiko Udalean etxebizitza publikoetako ehuneko 93 eraiki ziren eta pribatuetako ehuneko 49.

Obretarako lizentzien bidez eskuraturiko tasek 1.149 milioi egin zuten.

20. Parke eta lorategiei buruz egindako galderrei erantzun zieten hamar entitateek 3,5 milioi m² dituzte, alegia 12,46 m² biztanleko.

21. Argiteria publikoaren kontsumoak eta mantentimenduak 616 milioi pezeta egiten dute, 1.884 pezetako gastua biztanle bakoitzeko.

22. Bideen garbiketa 15 udaletatik 14tan egiten da. Lan horrek 712 milioiko kostua egiten du eta 2.368 pezetako gastua biztanle bakoitzeko.

23. Ondokoak dira udalek eskaintzen dituzten kultur zerbitzu nagusiak: liburutegia (13 udaletan), kultur etxea (14 udaletan) eta musika eskola (12 udaletan). Udalek zuzenean ematen dituzten zerbitzuetako guztizko kostuak 752 milioi egiten du, alegia 2.301 pezeta biztanleko.

e) Dirusarrerak.

24. Jaso diren datuen arabera, aldizkotasuna duten zergei dagozkien 535.633 ordainagiri kudeatzen dira. Horietatik ehuneko 64 helbideratuta daude. Igorritako ordainagiritatik ehuneko 20 kobratzeko zailak direla uste da.

25. Udal guztiek zerga-ordenantza orokorra dute. 95/12/31n, erantzun duten 14 udalek 297

zerga-ordenantza zituzten indarrean, alegia, 21 ordenantza udaleko, batez beste.

V. LEGE ESPARRUA.

1995ean Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea onetsi bazen ere, zenbait arau emateko ezartzen diren epeetan ez betetzeak gertatu direla atzeman da, baita Nafarroako toki entitateen arautze-esparruan gertatzen diren ez askitasunak ere.

Arautze falta honek eragina eduki du, batez ere, Foru Komunitateko toki sektore publikoko eredu eta mapa eratu eta definitzerakoan, eta oraingo antolamendu-egoerara eraman gaitu, non eskumen propioak edo delegatuak dauzkaten erakundeak eta entitateak baitaude, giza eta gauzako baliabideak dituztenak; hala ere, haiek toki zerbitzu publikoak emateko ikuspegi orokorrik ez dute (III eta VII.4 Atalak). Halaber, antzeman dugu Toki Ogasunei buruzko Foru legearen 123. artikulua aurreikusitako proiektu arautzailea burutzea ez dela bete, Toki Ogasunek Nafarroako Aurrekontuetan izan beharreko Partaliertza Fondoari dagokionez.

Beste alde batetik, Toki Ogasunei buruzko Legeak ezarri zuen Nafarroako Gobernuak egin beharreko kudeaketak egin beharko dituela Nafarroako udaletako bahituretxeen sistema Nafarroako Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko. Horri dagokionez, ez da inongo akordiorik lortu.

VI. NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 1995EAN.

Aztertu dugun informazioaren mugak aintzat hartuz, ondorengo gorabehera hauek azpimarratuko ditugu:

a) Nafarroako udal eta kontzejuak.

Aztertu dugun 1995eko ekitaldian, aurrekontuaren kitapenak ondorengo datu azpimarragarri hauek dauzka (Txosteneko VII.4.1 atala):

- Kitatutako eskubideek 49.774 pezeta egiten dute, aitortutako obligazioek 50.248 milioi pezeta egiten duten bitartean. Beraz, ekitaldiko superabit orokorra 475 milioikoa da (VI.1 atala). Aurrekontuetan gertaturiko defizit-emaizta horrek azken hiru ekitaldietan lorturiko superabiteko joera hautsi du. Horren arrazoia izan da kapital- eta finantza-dirusarrerak gutxiago izan direla. Gainera horrekin batera gertatu da jatorri berdineko gastuak ez direla hein berean gutxiagotu. Defizit hori, batez ere, 50.000 biztanle baino gehiagoko entitateetan sorturiko defizitetik heldu da.

- 1995ean toki sektoreko inbertsioak jaitsi egin dira; horrek sektore horretako gastu eta dirusarren osaketaren egitura aldarazi du.

- Baliabideen ehuneko 45 –aurreko ekitaldiarekin alderatuz bi puntu gehiago– jasotako transferentzietatik dator. Zerga izaera dutenak ehuneko 44 dira, aurreko ekitaldian ehuneko 39 izan ziren bitartean.

- Gastuetan, ehuneko 64 ohikoak dira (1994an 59). Kapituluak, azpimarragarrienak dira langile gastuak (gastu guztien ehuneko 31), inbertsioak (gastu guztien ehuneko 28) eta ohiko ondasunen erosketak (ehuneko 23).

- Zorpetze maila ehuneko 11 da, aurreko ekitaldian baino 2 puntu gutxiago. Eta zorpetze muga (ehuneko 24) ez da aldatu 1994ko ekitaldiarekin konparatuz. Indize hau da arrazoizkotasan ekonomikoaren ikuspegitik gainditu behar ez den zorpetze maila.

- Azkenik adierazi behar da zerga-zama 1994an baino ehuneko 8 handiagoa dela, 43.845 pezeta biztanleko izatera iritsi delarik.

b) Mankomunitateak eta Udal Elkarteak.

1995eko ekitaldian, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten mankomunitateen eta udal elkarten aurrekontuen kitapenek honako datu interesgarri hauek ematen dituzte (Txosteneko VII.4.2 Atala):

- Kitatutako eskubideek 9.668 milioi egiten dute, eta aitortutako obligazioek 9.349 milioi egiten dute; superabita, hortaz, 319 milioikoa da.

- Gastuei gagozkiela, nabarmentzekoa da gastuen ehuneko 37 inbertsioetarako ematen eta ehuneko 32 transferentzietarako, batez ere elkarre instrumentaltzat; langileria gastua ehuneko 7 baizik ez da, eta hori horrela da langileria elkarten barruan txertatzen delako.

- Zorpetze maila ehuneko 12 da; zorpetze muga, hau da, zama finantzarioari eusteko gaitasuna, ordea, ehuneko 25 da; beraz, aurrezki garbia positiboa da. Aurrezki positibo hau ehuneko 14 da.

- Zerga-zama ehuneko 4 handiagoa da.

c) Zor Bizia 1995eko abenduaren 31n.

Eskura dauzkagun datuen arabera, 226 udal, 236 kontzeju eta 34 mankomunitateri buruzkoak, 1995eko abenduaren 31n Nafarroako biztanleriaren ehuneko 95,4 egiten dutenak (txosteneko VII.4.3 atala), entitate hauen zor biziak 20.812 milioi jotzen du, eta honek esan nahi du udaletan biztanle bakoitzeko zorra 34.933 pezeta dela, eta kontzejuetan 24.426 pezeta.

Banaketa (milioitan) ondorengo hau da:

Entitateak	Nafarroako Go- ernuaren zorra	Finantza enti- tateen zorra	Guztira	Zorra per cápita (pta.)
Udalak	5.603	12.259	17.862	34.933
Kontzejuak	222	245	467	24.426
Mankomunitateak	69	2.414	2.483	-
Guztira	5.894	14.918	20.812	-

Informazio hori aztertu eta aurreko ekitaldiarekin alderatu ondoren, ondorio hauetara iritsi gara:

- Zor guztia ehuneko 5 gutxiagotu da eta jaitsierak hiru entitate multzoetan gertatu dira; udalen zorra ehuneko 4 gutxiagotu da, kontzejuena ehuneko 5 eta mankomunitateena ehuneko 13.

- Zor guztiaren gutxiagotze horren ondorioz, zor per cápita ehuneko 4 gutxiagotu da udaletan eta ehuneko bost kontzejuetan.

Udal eta kontzejuen zorraren banaketa geografikoaren arabera, honako ondorio hauetara iristen gara:

- Zorraren ehuneko 32 Iruñerriari dagokio, eta horren ondoren hegoaldeko Erribera dator, zorraren ehuneko 25ekin, eta ondoren goiko Erribera ehuneko 12rekin.

- Alor bakoitzaren aldaketari dagokionez, Estellerri inguruan ehuneko 15eko jaitciera izan da eta Iruñerrian ehuneko 12koa. Jaitciera horren arrazoia, batez ere, Lizarrako Udalaren zorraren gutxitzeari egotzi behar zaio, Estellerriaren kasuan, eta Iruñeko eta Barañaingo udalen zorraren gutxitzeari Iruñerriko kasuan.

Ondoren, garrantziaren arabera, Goiko Erriberak jarraitzen dio, ehuneko 9ko jaitsierarekin, batez ere Sesma, Funes eta Andosillako udaletan antzematen dena. Pirinioetako ibarrek ere behera egin dute zorrari dagokionez –ehuneko 8– eta Pirinio aurreko ibarretako alderdiak ere ehuneko 4 behera egin du.

Zorren gehiagotzeari dagokionez, Kantauri aurreko ibarretako zorra ehuneko 9 handiagotu da.

Garrantzian, Hego Erriberak eta Ekialdeko Erdialdeak jarraitzen diote, ehuneko 7ko handiagotzearekin.

Azkenik, kantauriko ibarretako alderdiak ere bere zorra handiagotu du ehuneko 5ean.

Zor “per cápita”, guztira, 35,783 pezetakoa da. Alabaina, zonaldeka, Kantauri aldeko ibarretan zor “per cápita” horrek 67.953 pezeta/biztanleko jotzen du; ondoren Goiko Erribera datoz 65.663 pezeta/biztanleko zorrarekin, gero Hegoaldeko

Erribera 59.295 pezeta/biztanleko zorrarekin eta azkenik Pirinio aurreko ibarrek datoz, 48.640 pezeta/biztanleko zorrarekin.

- Biztanleko zorrik txikien daukan zonaldea Iruñerria da, 21.840 pezeta/biztanleko zorrarekin.

Udal eta Kontzejuen zorraren banaketa biztanleriaren arabera ikusi eta gero, honako ondorio hauek aterako ditugu:

- 5.000 biztanle baino gutxiago daukaten entitateetan zorra ehuneko 2 gehiagotu da, eta biztanleko zorrik handiena daukatenak dira, 46.912 pezeta hain zuzen ere, batez-bestekoa 35.783 pezeta den bitartean. 5.000 eta 50.000 biztanleen artean daukaten entitateetan, beren aldetik, zor “per cápita” batez-bestekoa baino handiagoa da (42.748 pezeta biztanleko).

50.000 biztanle baino gehiagoko udalek beren zorra aurreko urteko zorrarekin alderatuz ehuneko 18 jaitsi badute ere, 18.965 pezetako zor per cápita daukate, alegia, batez-bestekoa baino ehuneko 47 gutxiago. Egitate hori Nafarroako Gobernuak toki korporazioak saneatzeko legeei jarraituz egin dituen ekarpenekin erlazionatu behar da.

Zorpetzeko gaitasunik handiena udal txikienek daukate.

31 udal eta 42 kontzeju daude zorpetzeko gaitasun negatiboa dutenak; 91 udal eta 148 kontzejuen zorpetzeko gaitasunak 25 puntuak gainditzen ditu; 10 udal eta 20 kontzejuetan biztanleko zergen bidezko dirusarrerak 100.000 pezeta baino gehiagokoak dira.

d) 5.000 biztanle baino gehiagoko udalen aurrekontuaren betetze eginkizunen arabera-koa eta betetze ekonomikoa.

- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalen aurrekontuaren betetze maila aztertuta (VII.4.4. atala), eginkizunen arabera-ko sailkapenaren eta sailkapen ekonomikoaren arabera, ondoko puntuak azpimarratu behar ditugu:

- Etxebizitza eta hirigintza zerbitzuak, 6.136 milioi pezetako gastuarekin –ehunekoaren 21–, gastu-ehuneko handiena duen eginkizuna da.

- Garrantziaren arabera, gizartearen babesari eta hiritarren segurtasunari loturiko gastuak datoz, 4.380 milioi pezeta –ehuneko 15–. Atal horrek, batez ere, funtzionarioen pentsioak eta Gizarte Segurantzari eta Bahituretxeei emandako kotizazioak.

- Ondokoak dira gastuaren ehuneko esanguratsua hartzen dituzten bestelako zerbitzuak: Kultura eta Kirola –ehuneko 11–, Hezkuntza

–ehuneko 10–, Zor Publikoa –ehuneko 9–, Gizartearen segurtasuna eta babesia –ehuneko 8– eta Administrazio orokorra –ehuneko 8–.

Gomendioak.

Orokorrean, lehengo ekitaldiko txostenean ematen ziren gomendioek indarrean dira, honako puntu hauek ukitzen zituztenak:

Botere publikoek jardun egin behar dute toki entitateetako lege esparrua arautzen, garatzen eta betetzen, Udal kudeaketarako funtsezkoak diren hainbat gorabehera, pentsioen eredia gaurkotzea edo eta Nafarroako udal maparen taxutzeta, kasu, arautu ahal izan daitezten. Udalen elkarteak ere taxutu beharko dira idazkaritza eta kontuhartzailtza zerbitzuak ere eman ditzaten. Beraz, betegabe dauden lanpostuetara sartzeko probetarako deialdiak egin beharko dira.

Aurrekontuak udal kudeaketaren oinarritzko tresna izan behar du. Horrek eskatzen du, besteak beste, Udalbatzak onartzea aplikatu behar den ekitaldia baino lehen, eta betetzean gastuentzako kredituen mugak begira daitezten, beharrezkoa balitz, aurrekontu aldaketara joaz.

Kontabilitate sistemak, informazio-sistema bezala ulerturik, udal jardueraren arrazoizko jarraipena eta kontrola erraztuko ditu aurrekontuaren betetzearen ezagutza egokiaren bidez, entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioaren ikuspegi orokorra emango du eta kudeatzaile publikoaren beharren erantzuna den informazioa eskura jarriko. Ildo honetatik, inbentarioen kudeaketak eta toki sektore publikoari egokitutako Kontabilitate Plan Orokorren txertaketak, udal kudeaketaren tratamendu kontablean hobekuntza nabarmenak ekarriko dituzte.

Horri dagokionez, azpimarratzekoa da Toki Ogasunei buruzko Legearen zazpigarren eta zortzigarren xedapen iragankorrek ezarritakoa, alegia, Nafarroako Gobernuak ezarriko duela toki entiteen aurrekontuen egitura eta toki entitateek beren aurrekontuak eta beren kontabilitatea egokitu beharko dituztela 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera Toki Ogasunei buruzko Legeak ezarritakoa betetzeko.

Gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatuko dira.

Jarduketa plan orokorra ezartzea, udalaren inbertsio-beharrak ezagutu eta lehentasunaren arabera sailkatzea ahalezko egingo duena, baita beroriei aurre egiteko behar finantzarioak eta baliabideen balorazioa ere.

Beren aurrekontuak eta kitapena eduki behar dituzten erakunde autonomoen izaera juridikoa garbi definitzea, ondoren udalaren beraren kontuekin bateratzearen kaltetan gabe.

Administrazio eta kontabilitate barne-jardunbideak definitzea –erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak–, langile bakoitzak egin behar dituen lanak ezarriz eta bere eginkizunak zein erantzukizunak zehaztuz.

Udalaren ondasun guztiak Jabetzaren Erregistroan idaztea.

Kontratazioari, langileriarri, aurrekontu-kudeaketari eta hirigintzari buruzko legedia orpotik betetzea.

Nafarroako Gobernuak analiza dezan hainbat udalek daukan zorpetze-maila, batez-bestekoa baino askoz handiagoa baita, eta azter dadin, baita ere, entitate horietan gastuari eusteko edo eta dirusarrerak handiagotzeko politikarik ezartzen ahal ote den, gaitasun finantzario ezaren ondorioz jarduera gelditu ez dadin.

Azkenik, adierazi nahi dugu guztiz beharrezkoa dela inplikaturako erakunde guztiek (Udal eta Kontzejuen Nafarroako Federakundea, Gobernu-toki Administrazioiko Departamentua, Nafarroako Parlamentua) toki entitateak premiatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak ezartzen dituen epeen barruan euren aurrekontuen kitapena bidal ditzaten, baita Kontuen Ganbarekin lan-kidetza sakon dezaten ere, eta eskatzen zaizkien datuak bidal ditzaten, horrela Nafarroako toki sektore publikoari buruzko denboraren eta formaren aldetik osoak diren datuak eskuratzen ahal izan ditzagun.

Era beran, erakunde eskudunek aztertu beharko lukete ez ote den komenigarria, egokien jotzen den formula erabiliz, zenbait beharkizun (populazioa, aurrekontua, enplegatuen kopurua) gainditzten dituzten toki entitateek urtero derrigorrez beren kontuen auditoretza egin behar izatea.

VI. FINANTZA-EGOERAK 1995-XII- 31N**VI.I. UDALEN ETA KONTZEJUEN 1995EKO AURREKONTUAREN KITAPEN EKONOMIKOA**

(mila pezetatan)
Dirusarreraren aurrekontu-betetzea.

	Kapit.	Aitorturiko eskubideak	Egitura, ehunekoa	Kobraturik	Kobratutakoehunekoa	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	1	8.146.858	%16	7.175.708	%88	971.150
Zeharkako zergak	2	1.860.207	%4	1.638.179	%88	222.028
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	12.112.637	%24	10.993.621	%91	1.119.016
Ohiko transferentziak	4	16.985.368	%34	15.720.518	%93	1.264.850
Ondareko dirusarrerak	5	841.163	%2	779.156	%93	62.007
Inbertsio errealak besterentzea	6	1.568.679	%3	1.482.336	%94	86.343
Kapital transferentziak	7	5.532.572	%11	4.421.956	%80	1.110.616
Finantza-aktiboen aldaketak	8	415.223	%1	348.115	%84	67.108
Finantza-pasiboen aldaketak	9	2.310.929	%5	2.287.039	%99	23.890
Dirusarrerak, guztira		49.773.636	%100	44.846.628	%90	4.927.008

(mila pezetatan)
Gastuen aurrekontu-betetzea.

	Kapit.	Aitorturiko betebeharrak	Egitura, ehunekoa	Ordainduta	Ordaindutakoehunekoa	Ordaintzeko dagoena
Langileen ordainsariak	1	15.454.021	%31	15.293.394	%99	160.627
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	11.526.958	%23	9.364.123	%81	2.162.835
Korrituak	3	1.522.438	%3	1.457.019	%96	65.419
Ohiko transferentziak	4	3.488.827	%7	2.564.413	%74	924.414
Inbertsio errealak	6	14.298.514	%28	11.541.935	%81	2.756.579
Kapital transferentziak	7	322.816	%1	238.318	%74	84.498
Finantza-aktiboen aldaketak	8	610.148	%1	610.148	%100	0
Finantza-pasiboen aldaketak	9	3.024.415	%6	2.879.321	%95	145.094
Gastuak, guztira		50.248.137	%100	43.948.671	%87	6.299.466

VI.2. MANKOMUNITATEEN ETA UDAL ELKARTEEN 1995EKO AURREKONTUEN KITAPEN EKONOMIKOA

(mila pezetatan)

Dirusarrerren aurrekontu-betetzea.

	Kapit.	Aitorturiko eskubideak	Egitura, ehunekoa	Kobratutakoen ehunekoa	Kobratutakoen ehunekoa	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	1		0			0
Zeharkako zergak	2		0			0
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	5.104.446	%53	4.963.038	%97	141.408
Ohiko transferentziak	4	1.268.632	%13	1.177.970	%93	90.662
Ondareko dirusarrerak	5	201.826	%2	200.948	%100	878
Inbertsio errealak besterentzea	6	29.478	%0	29.478	%100	0
Kapital transferentziak	7	2.822.052	%29	2.796.990	%99	25.062
Finantza-aktiboan aldaketak	8	125.742	%2	123.742	%98	2.000
Finantza-pasiboan aldaketak	9	115.739	%1	115.739	%100	0
Dirusarrerak, guztira		9.667.915	%100	9.407.905	%97	260.010

(mila pezetatan)

Gastuen aurrekontu-betetzea.

	Kapit.	Aitorturiko betebeharrak	Egitura, ehunekoa	Ordainduta	Ordaindutakoen ehunekoa	Ordaintzeko dagoena
Langileen ordainsariak	1	696.777	%7	689.586	%99	7.191
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	1.268.191	%14	1.103.445	%87	164.746
Korrituak	3	242.667	%3	237.385	%98	5.282
Ohiko transferentziak	4	2.965.161	%32	2.960.398	%100	4.763
Inbertsio errealak	6	3.502.546	%37	2.603.067	%74	899.479
Kapital transferentziak	7	13.801	0	13.694	%99	107
Finantza-aktiboan aldaketak	8	174.254	%2	170.254	%98	4.000
Finantza-pasiboan aldaketak	9	485.427	%5	468.142	%96	17.285
Gastuak, guztira		9.348.824	%100	8.245.971	%88	1.102.853

VII. EGINDAKO LANEN AZTERKETA.

Atal honetan jaso ditugu Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txosten orokor honetarako egindako lanen funtsezko alderdiak eta ateratako ondorio eta gomendioak. Txosten honetako V. atalean jasotakoak garatu eta, hala badagokio, zabaldu egiten dituzte.

VII.1. TXOSTENAK.

VII.1.1. Fiskalizazio txostenak.

1995 urteko fiskalizazio-egitarauaren arabera, Kontuen Ganbarak 1996 urtean ondorengo toki entitateak fiskalizatu zituen, II.1 atalean jasoak gelditu den bezala.

Toki entitatea	NPAO-ko zk.	Fiskalizazio ekitaldia
Lesaka	57/1996	1995
Bera	57/1996	1995
Fitero	6/1997	1995
Cintruénigo	6/1997	1995
Corella	Bukatu gabe	1995
Baztan	Bukatu gabe	1995

Gainera, udalek berek eskatuta, Pitillas, Luzaide eta Erroibarko udalen berrazterketa mugatuak egin dira.

Toki entitate horien eta beren erakunde autonomoen eta merkataritza enpresen 1995 urteko finantza-egoera aztertu da.

Ganbara honen iritziak ondoko ataletan egituratzen da, bera arautzen duen Foru Legearen arabera:

a) 1995eko Aurrekontuaren garapena eta betetzea.

Guztietan esaten da 1995eko aurrekontuaren betetze egoerak egoki adierazten duela udalak fiskalizatutako ekitaldian egin duen eragiketa multzoa, salbuespen batzuk gorabehera, honako hauek direlarik gehien errepikatzen direnak:

- Aurrekontu-aldaketak gastua egin ondoren onestea.
- Inbertsioak egoki ez kontabilizatzea.
- Eragiketak egoki ez moztea.
- Ekitaldiko huts egindakoei pasatu behar zitzaizkien hainbat dirusarreraren erresulta egotea.
- Aurrekontu egozpen okerrak egotea, haien izaerari dagokionez, gastuetan nahiz dirusarreretan.

b) 1995eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren adierazpena, eskuarki onarturiko kontabilitate hatsapenen arabera.

Udalak toki sektore publikoari egokituriko Kontabilitate Plan Orokorra ezartzeko ahaleginetan ari dira. Esperientzia hau 1994an hasi zen Iruñean, Burlatan eta Lizarran, eta 1995ean 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietara hedatu da.

Cintruénigo, Corella eta Baztango udalek 1995ean ezarri dute Toki Administrazio Publikoari egokituriko Kontabilitate Plan Orokorra. Corella eta Baztango udaletan guk aztertzeko izan ditugun mugapenak gertatu dira ibilgetuen balore kontableen erregistro euskarri egokirik ez zegoe-lako, izan ere ondasunen inbentarioa gaurkotu gabe zeukatelako. Hori dela eta, ezin izan dugu iritzirik eman.

Cintruénigoko kontuek egoki islatzen dute 1995eko abenduaren 31ko ondarearen egoera.

Gainerako udaletan ondarearen kontabilitaterik ez dagoenez, eta ondorioz egoeraren balantzerik ez dagoenez, ezin izan dugu iritzirik eman 1995eko abenduaren 31ko ondare egoerari buruz.

c) Ekonomi eta finantza-jarduerak legezkotasun hatsapenari jarraitzea.

Aztertutako toki entitateen ekonomi jardueraz eta horrek legezkotasun hatsapenari jarraitzeari buruz, hainbat lege hauste ikusi da, zenbait kasutan arazoak sorraraz ditzaketenak.

Legea ez-betetzearen kasurik ohikoenak langileria, kontratazio, zerga eta aurrekontu-kontabilitatearen alorrean gertatzen dira.

d) Udalaren menpeko erakunde autonomoak.

Menpeko zortzi enteetako zazpitan kontuek egoki adierazten dute aurrera eramandako jarduerara. Hala ere, hiruk ez dute aurrekontu-kitapenaren egoera aurkeztu eta haien kontuak ez dira egokitzuten sektore publikoaren kontabilitate arauetara.

Fiteroko Zaharrentzako Egoitzak 1995ean ez du aurrekonturik egin ez kontuen kitapenik aurkeztu. Hori dela eta, ezin dugu erakunde autonomo horri buruzko iritzirik eman.

Ondotik azalduko ditugu aurreko txostenetan eman diren aholkurik nagusiak. Aholku horiek alorren edo gaien arabera sailkatu ditugu.

• Aurrekontu-betetzea

Aurrekontuak burutzea eta onestea legeak ezarritako epeetan, baita haien kitapena ere, ahal den eta azkarren.

Gastuak eta dirusarrerak aurrekontuan kontabilizatzea haien sortzapenaren arabera, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko, betiere kredituen izaera mugatzailea errespetatuz edo, hala behar izanez gero, aurrekontu-aldaketak egitera joaz.

Udalaren aurrekontuetako espedienteetan eta haien kitapenean erakunde autonomoen dirusarrerara eta gastuak sartzea, indarra duen legediaren arabera.

Dirusarrera eta gastuen sortzapen eta koerlazio hatsapenak zuzen aplikatzea ekonomi eragiketen erregistroan, eragiketa horiek kontabilizatuz gertatzen diren unean eta ez ordaintzen edo kobratzen direnean.

- Egoera ekonomikoa

Udalaren finantza egoera oneratzeko bitartekoak ezartzea gomendatzen dugu, esate baterako gastu arruntari eutsi eta bera arrazionalizatzeako politikak eta inbertsioak aukeratzeko politikak.

Diruzaintzari buruzko plan bat burutzea, diru beharrak eta baliakizunak aurretiaz ezagutzeko bidea eman eta aurrekontuen kudeaketarako tresna gisa erabil daitekeena.

- Udalaren menpeko erakundeak

Erakunde autonomo bat egon dadila planteatzea, izan ere eragiketa nahikoa dagoelako eta funtzionamendu-sistemak ere hala eskatzen delako.

Langileen plantila organikoa burutzea eta aurrekontuarekin batera izapidatzea. Plantilak lanpostu guztiak bilduko ditu.

Erakunde autonomoaren jarduera Udal Kontuhartzaitzaren bidez fiskalizatzea.

- Barneko antolamendua eta kontrola

Idatziz ezartzea erabiliko diren administrazio eta kudeaketa prozedurak, langile guztiek sistemak ezagun ditzaten eta dauzkaten eginkizun eta erantzukizunak emanda izan ditzaten.

Diruzaintzaren kudeaketa alorraren eginkizunen banaketa, betiere administrazioko langileen egiturak ematen dituen posibilitateen barruan.

Ordainketak izendun txeeen bidez egitea.

Banku kontuetako fondoak erabiltzeko gutxienez mankomunitateko bi pertsonen sinadura behar izatea.

Kaxako zenbatekoak eta banku-berdinkatzeak egitea hilabeteen behin, gutxienez.

Agente exekutiboaren kobratzeko eman zaizkion saldoen kontabilitatez kanpoko kontrola (informatizatua) eramatea, zordunak, zergak eta zorraren urtea zehaztuz. Urtean behin, gutxienez, informazio hori berdinkatzea agente exekutiboak dituenekin.

Udalaren eta erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa eguneratzea eta inbentarioaren eta kontabilitatearen arteko lotura informatikoa segurtatzen duen sistema bat aztertzen eta ezartzen jarraitzea. Horrek bidea emanen du, beste gauza batzuen artean, udalaren inbentarioa beti eguneratuta edukitzeko.

Era berean, toki entitateek beren helburuak betetzeko eta beren baliabideak kudeatzeko duten efikazia, eragingarritasuna eta ekonomia baloratzeko behar diren adierazleak edukitzeko prozedurei ekin beharko litzaieke.

Ondasun higiezin eta herri-ondasun guztiak Jabetzaren Erregistroan inskribatzea gomendatzen dugu.

Oinarrizko kontabilitate-prozedurak bilduko duen eskuliburu bat garatzea, batez ere ondokoak garatzeko:

a) Prozedura bakoitzean aplikatu daitezkeen kontabilitate-irizpideak.

b) Aldizkako adostekak eta egiaztaketak egitea.

c) Amaierako eragiketak.

d) Saldoen azterketa.

- Langile gastuak

Organigrama bat zehaztea eta enplegatu bakoitzaren eginkizunak idatziz ematea.

Udalbatzako kideen ordainsariak osoko bilkuran onestea, zehaztuz dietak eta gastuen konpenzazioak direla.

Bai PFEZaren buletineta bai Gizarte Segurantzarenean, Udaleko langile guztiek jasotako ordainsariak sartzea, indarreko legedia aplikatuz.

- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.

Gastu horietarako aurrekontuaren Betetze Oinarriek ezarritakoa estu betetzea.

Baliabideen arabera, eginkizunen banaketa egokia ezartzea, pertsona bakarraren eskuetan egon ez daitezkeen kontabilizazioa eta fakturen egiaztapena, edo baita haien ordainketa bera ere.

Jasotako fakturekin kredituaren erreserba erabiltzea, onetsi diren edo ez diren onetsi alde batera utzita, kreditu-baliakizunak gastu berrietan sartu baino lehenago ezagutzeko.

Egindako gastuen euskarri gisa behar den dokumentazio euskarria exigitzea (fakturak eta abar), indarreko arauen arabera egina, eta ordainketan izendun txeeen bitartez egitea.

- Emandako ohiko transferentziak

Gure gomendioa da onuradunei emandako dirulaguntzak behar diren akordioen bidez arautzea eta dirulaguntza horien ematea arautuko duen arautegia burutzea.

- Inbertsioak

Kontratauei buruzko Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako arautegia estu aplikatzea, obra espediente guztiek behar diren egiaztagiri guztiak izan ditzaten eta publizitate eta lehiaketa hatsapenak berma ditzaten, horiek biak oinarritzko elementuak entitate publikoek egiten dituzten kontratazioetan.

Gure gomendioa da inbertsio errealen kontabilitate-erregistroa egitea, obren esleipen-hartzaileek emandako obra-egiaztagirien arabera, eta ekitaldi berean gertaturiko dirusarrerak eta gastuak erregistratzea. Era berean, ekitaldiaren itxiera egokia egiteko gomendagarria litzateke abenduaren 31n, egun horretan burutu diren obretan bete den diru-zenbatekoaren araberrako kasuan kasuko egiaztagiriak edukitzea.

- Zergak

Zergei buruzko erroldak, altak, bajak eta ordainagiriaren zuzenketak alkatetzaren dekretuaren bidez edo Osoko Bilkuraren akordioaren bidez onestea.

NAOn argitaratzea indarrean sartu diren ekitaldiko urtarilaren 1a baino lehenagoko korritu-tasa aplikagarriak argitaratzea.

Behin zerga-kontzeptu bakoitzerako ezarri den borondatezko aldia bukatuta, luzapenen-erreaktiboak aplikatzea.

Ordaintzeko dauden ordainagiriak arinago bidaltzea agentzia exekutibora, kobrantzarako borondatezko epea bukatzen den unean.

- Hirigintza

Hirigintza planeamendua indarra duen arauari egokitzea (Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legea).

1994ko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru legeari jarraituz, gogorarazi behar da kasuan kasuko Lurzoruaren Udal Ondarea osatu beharra dagoela. Ondore hori hirigintza planeamenduak sailkaturiko ondasun guztiek osatuko dute: alde batetik hiri lurzoru edo programa-

turiko lurzoru eraikigarri gisa sailkatutakoak eta bestetik, betiere, bai lagapenen ondorioz lortutako lurzoruak – lurzoru gisa nahiz dirutan–, bai edozein motatako hirigintza desjabetzapenen bidez eta eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubi-dea erabiliz lorturiko lurzoruak.

- Ibilgetu materiala

Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratzea gomendatzen dugu, ibilgetuaren baloreen behar bezalako euskarria edukitzeko. Inbentario horrek ondokoak bilduko ditu: ondasunen banan-banako zerrenda, noiz erosi ziren, erosketa-kostuaren bizi erabilgarria, urteko amortizazioak, metaturiko amortizazioa, balore garbiak eta abar.

Era berean, kontabilitate-politikak egokiak finkatu behar dira ibilgetuko ondasunekin eginko eragiketen kontabilitate erregistro zuzena egiteko. Altak beren erosketa-kostuarekin eta burutu diren aldiaren erregistratu behar dira; bajak beren kontabilitate-baloreekin, lortzen den etekina edo sortzen den galera azalduz; amortizazioak, baliogalera izan dezaketen ondasunentzat zenbatesten diren bizi erabilgarrien arabera kalkulatu beharko dira.

VII.2. KONTRATAZIOAREN LABURPEN-FITXAK.

1995ean Nafarroako toki entitateek Kontuen Ganbarara bidalitako fitxak bost izan dira, guztira. Horietatik lau obra kontratauei buruzkoak ziren eta bestea zerbitzu publiko baten kontratazioari buruzkoa. Fitxa horietan eta eskatutako dokumentazio osagarrian bildutako informazioa aztertuta, ez da indarreko legedia hautsi denik antzeman, salbu espedienteetako batean, non derrigorrezkoak diren txosten juridikoa eta ekonomikoa eta zuzeneko kontratazioara jotzeko larritasunaren justifikazio nahikoa ere, horretarako zilegizko arrazoiak izan zitekeena, falta baitira.

VII.3. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 1995 URTEAN ARAUTZEN DITUEN LEGE ESPARRUA.

Aurreko txostenetan esan bezala, egungo arau esparrutik atera daiteke arau batzuk egiteko epeetan izan den atzerapena eta aipatu esparruak mentsak dituela, toki entitateen kudeaketan zuzeneko eragina dutenak, aurreko txostenetan agerian utzi denez. Hori horrela, funtsezkoenak baino ez ditugu laburbilduko, hots:

- TAFLko seigarren xedapen iragankorrak ezarri du Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko gehieneko epean –aipatu Foru Legea indarrean

sartu zenetik, 1990eko urria, alegia– bidaliko diola Parlamentuari Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Lege proiektua.

1994an bidali zuen Nafarroako Gobernuak aipatu Foru Lege proiektua Parlamentura, nahikoa atzerapenarekin, beraz, eta Parlamentuak martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bitartez onetsi du. Lege hori, gehien bat, 1996ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

Dagokion Foru Legea onartuta, eta horrek behar dituen erregelamenduzko garapenarekin, erantzuna eman behar zaio toki kudeaketarako funtsezko bi arazori:

a) Nafarroako toki entitateen finantziazio eredu finkatzea, toki entitateen finantza-autonomia hatsapenean eragin zuzena baitu (Toki Ogasunei buruzko Legearen 123. artikulua).

b) Toki kudeaketaren kontrol eta jarraipenari ezarri beharreko kontabilitate sistema garatzea (Toki Ogasunei buruzko Legearen zazpigarren eta zortzigarren xedapen iragankorrak). Edonola ere, 1993ko abenduan ekin zaio Nafarroako toki sektore publikoari egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra ezartzeko programari, esperimentu gisa eta 5.000 biztanletik gorako erakundeetan. 1998 urtean aurreikusita dago 3.000 eta 5.000 biztanleen arteko entitateetan aplikatzea.

- TFALek, epeak aipatu gabe, jaso ditu bere artikuluetan Foru Komunitateko udalen mapa ereduzea xede duten neurriak, emandako zerbitzuen kalitatea eta kostua hobetzeko asmoz. Neurri hauek udalak batzeari –20.2 artikulua–, Administrazio Esparruak sortzeari –33. artikulua– eta Mankomunitateak eta udalen arteko beste elkarte mota batzuk eratzeari –53. eta 62. artikulua– buruzkoak dira.

46. artikulua, era berean, aukera eman dio Foru Komunitateari dagokion Foru Legearen bitartez zera sortzeko: toki entitateen batasun derrigorrezkoak, administrazio zerbitzu amankomunak emateko.

TFAL indarrean sartu zenetik ez da batzeak edo/eta elkarteak sustatzeko araurik eman ez eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu ere batasun derrigorrezkoei buruzko proiekturik.

- TFALeko hirugarren xedapen iragankorrak ezarri du batasun derrigorrezkoak ezartzearen ondoriozko idazkaritza eta kontuhartzailtza lanpostuen behin-betiko berregituratzea gauzatu arte etenda geratuko direla hala Idazkari eta Kontuhartzaille izatera iristeko gaitasun-deialdiak, nola aipatu Foru Legeak aurreikusten dituen lehiaketa orokorrak.

Hau da, idazkaritza eta kontuhartzailtza zerbitzuak emateko batasun derrigorrezkoak zehazturik ez direnez, ezin dira jakin bi lanpostuetarako dauden beharrianak eta, ondorioz, horietara iristeko probak zehaztu. Etenak, gainera, batu daitezkeen udalei ezezik, gainerakoei ere eragiten die, aldi iragankor honetan, hutsik dauden lanpostu aldi baterako langileekin bete daitezkeen arren.

- TAFLko hamaikagarren xedapen gehigarriak aipatu du Nafarroako Gobernuak sortu eta mantenduko duela Aberastasun Komunalaren Erregistroa, bertan agertuko direlarik toki entitateen herrilurren azalera, mugak eta erabilerak, eta baita baliabideak sortzeko gaitasuna ere.

Era berean, aipatu Foru Legearen hamabigarren xedapen gehigarriak dio Merinalde bakoitzean eratuko dela Herrilurren Batzarre Arbitrala, toki entitateek eta herri-ustiapenen onuradunek osatua. Aipatu Batzarrak kontsultiboak izango dira toki entitateentzako herri ondasunen probetxamenduari buruzkoan, eta horien jarduna derrigorrez eman behar diren baina lotzen ez dituzten txosten publikoetan gauzatuko da.

Txosten hau idazteko ordura arte, ez da goiko aurreikuspenetatik batere gauzatu, herri ondasunek Nafarroan ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntuetatik garrantzi handia izan arren.

Behar diren kudeaketak egitea, Toki Ogasunei buruzko Legearen xedapen gehigarrietako bederatzigarrenari jarraituz, Bahituretxeen sistema Gizarte Segurantzaren sisteman sartu arte. Horrekin, amaiera emango litzaioke toki entitateetako funtzionarioen gizarte-laguntzarako sistema gaurkotzeko prozesuari.

Horri gagozkiolarik azpimarratu beharra dago, halaber, toki erakunde jakin batzuei –biztanlerik gehien izanik, Bahituretxe propio dutenei– lanpostu jakin batzuk –udal idazkaria eta osasun langileak– Bahituretxe Orokorrari atxiki beharrik ekarri dien ondorio ekonomikoa, horren defizita toki entitateen ekarpenarekin ordaintzen baita, udaletako biztanleen kopurua kontuan hartuz soilik.

Halaber, egiaztatu ahal izan dugu Toki Ogasunen Partehartze Fondona arautzeko proiekturik ez dagoela, nahiz eta 2/1995 Foru legearen 123. artikulua hura aurreikusi. Foru Lege hori, gainera, 1995eko urriaren 1ean sartu zen indarrean, Legearen beraren azken xedapenetako bigarrenari jarraituz.

Ondorio gisa eta laburbilduz, zera ikus daiteke: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea ez dela bete funtsezko alderdi batzuk gartzeari buruzkoan, eta alderdi horiek eragin handia

dute Foru Komunitateko toki sektore publikoaren eredia eta mapa mugatu eta taxutzerakoan.

Era berean, osatu gabeko arau esparrua izateak halako segurtasunik eza sortzen du –bai toki erakundeetan eta bai hiritarrengan– udal kudeaketari inongo mesederik egiten ez diona.

Gure gomendioa da ahalik eta lasterren osatzea Nafarroako toki entitateak arautzeko esparrua. Gai horretan, berebiziko premia du udalen mapa taxutu eta ezartzearenak eta funtzionarioei ezartzen zaien gizarte-laguntza sistema egunera-iztea.

VII.4. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

VII.4.1. Nafarroako udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren betetzea.

Aurreko ekitaldietan bezala, Nafarroako udal eta kontzejuen 1995eko aurrekontuaren betetzea-ri buruz daukagun informazioak (ikus I.2 atala), nabarmen mugatzen du egoera ekonomiko-finantzarioa behar bezala aztertzea.

Alabaina, daukagun informazioa 221 udal eta 234 kontzejuri buruzkoa da, hau da, 504.498 biztanle hartzen ditu; beraz, kopuru nahiko zabala da, Nafarroako biztanleria osoaren ehuneko 94 delako 1995eko urtarilaren 1ean. Horregatik uste dugu informazio horretatik zenbait ondorio atera dezakegula.

a) Aurrekontuaren kitapenaren egiturazko osaketa

- 1995eko ekitaldiari dagozkion aitorturiko eskubideek 49.774 milioi egiten dute, eta aitorturiko betebeharrak, beste aldetik, 50.248 milioi. Beraz, badago 475 milioi pezetako defizita, 1994ko ekitaldian 2.029 milioiko superabita lortu zen arren.

Aurrekontuen defiziteko emaitza horrek aurreko hiru ekitaldietan lorturiko superabiten joera hautsi du. Kapital- eta finantza-dirusareren gutxiagotze bat egonik izaera bereko gastuak ez direlako gutxiagotu.

- Ohiko eragiketak eta kapital-eragiketa finantzarioak elkartuz, gastu eta dirusareren egiturazko osaketa honako hau da:

Gastuak	1995	Dirusarrerak	1995
Ohikoak	64	Ohikoak	80
Kapital-gastuak	36	Kapital-dirusar.	20

Datu hauetatik ateratzen dena da ohiko dirusarrerak nahikoak direla izaera bereko gastuak finantziatzeko, baita kapital-eragiketa eta eragiketa finantzarioak partez finantziatzeko ere.

1994ko ekitaldiari buruz eskura daukagun informazioaren arabera, bi urte hauetako egiturazko osaketa alderatuko dugu (informazio homogeneoa alderatuko dugu, beraz 1994 urteari dagozkion gastuek ez dute zertan bat eginik aurreko urteko txostenean ematen ziren datuekin).

Gastuak	1995	1994	Dirusarrerak	1995	1994
Ohikoak	64	59	Ohikoak	80	72
Kapital-gastuak	36	41	Kapital-dirusar.	20	28

Ikusten ahal da 1994tik 1995era ohiko eragiketen zenbatekoan gehikuntza izan dela, kapital-eragiketen kaltetan, dirusarretan 8 puntu eta gastuetan 5 puntu izan diren bitartean.

- Gastuen barruan garrantzikoena langileria-rena da, ehuneko 31, ondoren inbertsioena, ehuneko 28, ondoren ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea, ehuneko 23. Hau da, hiru kapitulu hauek batzen baditugu, aitorturiko betebeharren ehuneko 82 lortuko dugu.

1994 urtearekin alderatuz, ikusten da langile-riaren gastua eta ohiko ondasunak eta zerbitzuak erosteko gastua handitu egin direla inbertsio-gastuaren kaltetan.

- Gainera, ohiko eragiketen barruan, langileria-riaren kapitulua ehuneko 48 da, eta kapital-eragiketetan, ehuneko 78 inbertsioen kapitulua da.

- Finantziatzeko iturriak, aurreko ekitaldikoekin alderatuz, honela banatzen dira:

Finantziatzeko iturriak	1995eko ehunekoa	1994ko ehunekoa
Zergak	44	39
Transferentziak	45	43
Finantzarioak	6	11
Bestelakoak	5	7

Aurreko koadroko ehunekotan ikusten ahal denez, transferentziak, finantziatzeko iturria diren aldetik, 5 puntu jaitsi dira 1994 urtearekin alderatuta, nahiz eta transferentziek 2 puntu gora egin duten eta horiek udalek eta kontzejuek jasotzen dituzten dirusarrera nagusia diren, hain zuzen ere dirusarrera horietatik ehuneko 45.

b) Adierazlerik nabarmenenak.

Ondoren 1995eko aurrekontuaren betetze mailatik eskuraturiko adierazle batzuk azalduko ditugu, aurreko ekitaldiko kopuruekin alderaturik:

UDALAK ETA KONTZEJUAK

	1995	1994	1995/1994 aldaketa ehunekoa
Biztanle-kopurua	504.498	508.715	
Aurrekontuko superabita/defizita (milioiak)	(475)	2.029	
Dirusarrerak, bizilaguneko (pezetak)	98.660	104.392	(5)
Gastuak, bizilaguneko (pezetak)	99.600	100.405	(1)
Finantza-zama, bizilaguneko (pezetak)	9.013	9.996	(10)
Zerga-zama (pezetak)	43.845	40.679	8
Kobrانتzen betetzea (%)	90	87	3
Ordainketen betetzea (%)	87	86	1
Finantza-zama osoa (%)	11	13	(15)
Zorpetzearen muga (%)	24	24	0
Aurrezki garbia (%)	12	11	9
Langileriaren ardierazlea (%)	31	29	7
Inbertsioaren adierazlea (%)	29	32	(9)
Transferentziekiko menpekotasuna (%)	45	44	2

Ratio hauek alderatuz gero, hona hemen atera ditzakegun ondorioak:

- Aurrekontuaren betetzearen emaitza pasatu da 2.029 milioi pezetako superabita izatetik 1994an 475 milioi pezetako defizita izatera 1995ean. Horrek, bistan denez, bere oihartzuna izango du dirusarrerei buruzko ratioetan.

- Beraz, biztanleko dirusarrerak ehuneko 5 egin dute behera, gastuak ehuneko 1 behera egin duten bitartean. Era berean, zerga-zama aurreko urtearekin konparatuz, ehuneko 8 igo da.

- 1995ean toki sektorearen inbertsio-jarduera jaitsi da. Horrek sektore horretako gastuen eta dirusarreraren osaketaren egitura aldarazten du.

- Kobrانتzen ehunekoak gora egin du (ehuneko 3), eta ordainketek ehuneko 1 gora egin dute.

Zorpetzearen maila edo finantza-zama osoa ehuneko 15 jaitsi da, eta honi gehitzen badiogu zorpetzearen muga ehuneko 24an mantendu dela, aurrezki garbiaren gehikuntza gertatzen da: 1994 urtean ehuneko 11 izatetik 1995 urtean ehuneko 12 izatera pasatu da.

- Langileriaren indizea 1995 urtean ehuneko 2 igo da, eta inbertsioaren indizea ehuneko 9 jaitsi da.

- Azkenik, transferentziekiko menpekotasun indizea ehuneko 2 igo da: 1995 urtean ehuneko 45ean dago.

ADIERAZLEAK BIZTANLERIAREN ARABERA.

Ondoren aurreko azterketan udaletarako eta kontzejuetarako eman ditugun ratio horiek berak emango ditugu, baina biztanleriaren arabera, betiere mankomunitateak kanpo utzita:

UDALAK ETA KONTZEJUAK

	5.000 biztanle baino gutxiagoko entitateak	5.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten entitateak	50.000 biztanle baino gehiagoko entitateak
Biztanle-kopurua	182.851	139.871	181.776
Aurrekontuko superabita/defizita (milioiak)	87	(21)	(541)
Dirusarrerak, bizilaguneko (pezetak)	112.646	99.678	83.807
Gastuak, bizilaguneko (pezetak)	112.168	99.828	86.783
Finantza-zama, bizilaguneko (pezetak)	11.078	9.912	6.243
Zerga-zama (pezetak)	46.769	42.892	41.637
Kobrانتzen betetzea (%)	92	88	90
Ordainketen betetzea (%)	91	87	83
Finantza-zama osoa (%)	14	13	8
Zorpetzearen muga (%)	30	21	20
Aurrezki garbia (%)	16	8	12
Langileriaren ardierazlea (%)	20	35	41
Inbertsioaren adierazlea (%)	40	26	18
Transferentziekiko menpekotasuna (%)	45	45	46

Ratio hauek alderatzen ditugunean, ondorio hauek lortzen dira:

- Sektorea populazio tarteen arabera osaketa duela.

- Hala biztanleko dirusarrerak nola biztanleko gastuak gutxiagotzen doaz zenbat eta entitateak handiagoak izan.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zama gutxiagotzen doa zenbat eta entitateak handiagoak izan. 1994 urtearekin alderatuta, jaitsiera nabarmena gertatu da guztietan, eta batez ere tamaina ertainekoetan –ehuneko 19–.

- 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten entitateetan zerga-zama batez-bestekoa baino ehuneko 7 handiagoa da, gainerako entitateetan zerga-zama batez-bestekoa baino txikiagoa den bitartean.

- Kobrانتzen eta ordainketen aldaketak txikiagoak dira, entitaterik txikienak kobrانتzen eta ordainketen indizerik handienak dauzkatenak diren arren. Beste aldetik, entitate ertainak dira kobrانتzen eta ordainketen indizerik txikienak dauzkatenak.

- Zorpetzearen mugaren aldaketa honelakoa da: entitaterik txikienetan ehuneko 30 da eta gainerakoetan ehuneko 20 edo 21.

- Era berean, zorpetze maila edo finantza-zama osoa txikiagoa da zenbat eta entitatea handiagoa izan (ehuneko 8); gainerakoetan ehuneko

13 eta 14 artean mantentzen da. Horrek dakarrena da aurrezki garbia gogorki aldatzea, eta horrela, berau pasatzen da ehuneko 16 izatetik entitaterik txikienetan ehuneko 12 izatera entitate handienetan; entitate ertainetan ehuneko 8 da.

- Azpimarratzekoa da entitatea handiago eta langileriaren gastua ere handiagoa dela, eta, aitzitik, entitatea handiago eta inbertsioaren indizea txikiagoa dela.

- Kasu guztietan bada transferentziekiko menpekotasun handia (baliabideen ehuneko 45 eta 46 artean), toki entitateak finantziatzeko eredutik etorri dena.

VII.4.2. Mankomunitate eta udal elkartearen 1995eko aurrekontuaren betetzea.

Txosteneko VI atalean mankomunitateen eta udal elkartearen 1995eko aurrekontuaren kitapen gaineratua biltzen dira.

Datu hauek udalez gaindiko 38 entitateri dagozkie.

Ondoren, aurreko datuak aztertu eta gero ateratzen ditugun ondorioz garrantzizkoenak adieraziko ditugu:

a) Aurrekontuaren kitapenaren egiturazko osaketa.

- Aitorturiko eskubideek 9.668 milioi pezeta jotzen dute, eta aitorturiko betebeharrak 9.349

milioi pezeta, hau da, superabitak 319 milioi peze-
ta egiten du.

- Ohiko eragiketetako eta kapital-finantzarioe-
tako gastu eta dirusarreraren egiturazko osaketa
ondoren aipatzen dena da, aurreko urtekoarekin
alderatzen dela, gainera:

	Gastuak (%)		Dirusarrerak (%)	
	1995	1994	1995	1994
Ohikoak	56	63	66	77
Kapital	44	37	34	23

Ikusten denez, egiturazko osaketa hau hobe-
tzen da kapital-gastuen ehunekoa igo ahala, ohiko
gastuen kalterako.

Hau da, ohiko dirusarrek erabat finantziatzen
dituzte ohiko gastuak, eta hein batean kapital- eta
finantza-gastuak.

- Kapitulu ekonomikoen arabera, gastuak ain-
tzat hartzen baditugu, ikusten ahal da gastuen
ehuneko 32 transferentzietara bideratzen dela,
eta ehuneko 37 inbertsioak egitera. Zerga-zama
finantziatzeko (amortizazioa gehi korrituak), gas-
tuen ehuneko 8 bideratzen da. Langileriaren gas-
tuak ehuneko 7 baino ez dira, eta hau honela da
kudeaketarako elkarte bat sortu duten mankomu-
nitateek langileak sartzan dituztelako elkarte
horretan, eta gastu hauek finantziatzen dira man-

komunitateak elkarteari egiten dizkion transferen-
tzien bidez.

- Mankomunitate hauen finantziazio-iturriak
ondorengo hauek dira, aurreko ekitaldiko kopu-
ruekin alderaturik:

Finantziazio-iturriak	1995	1994
Tasak eta bestelako dirusarrerak	53	58
Transferentziak	42	37
Finantzarioak	3	2
Ondarekoak	2	3
Guztira	100	100

- Ikusten da mankomunitateak finantziatzen
direla zergen bidezko dirusarrekarekin (tasak) ehu-
neko 53an, bai eta dirusarrera finantzario eta
ondarekoak ehuneko 5 baino ez direla.

- 1994 urtearekin alderatuz, dirusarrera finan-
tzarioen bidezko finantziazioa 5 puntu txikiagoa
da, tasen bidez egiten dena poxi bat jaisten da eta
transferentzien bidez egiten dena 5 puntu handia-
gotzen da.

b) Adierazlerik garrantzizkoenak.

Ondorengo koadroan 1995eko aurrekontuaren
betetzetik ateratzen diren adierazleak ikusten ahal
dira, aurreko ekitaldiko kopuruekin alderaketa egi-
nez:

MANKOMUNITATEAK

	1995	1994	95/94 aldaketa %
Biztanle-kopurua	696.965	640.897	9
Aurrekontuko superabita/defizita (milioiak)	319	259	23
Dirusarrerak, bizilaguneko (pezetak)	13.871	12.084	15
Gastuak, bizilaguneko (pezetak)	13.414	11.679	15
Finantza-zama, bizilaguneko (pezetak)	1.045	1.326	(21)
Zerga-zama (pezetak)	7.324	7.048	4
Kobrantsen betetzea (%)	97	84	15
Ordaintzen betetzea (%)	88	87	1
Finantza-zama osoa (%)	11	14	(21)
Zorpetzearen muga (%)	25	26	(4)
Aurrezki garbia (%)	14	12	17
Langileriaren ardierazlea (%)	7	8	(12)
Inbertsioaren adierazlea (%)	37	27	37
Transferentziekiko menpekotasuna (%)	42	37	13

1993/1994 ratio hauek alderatu eta gero ondorengo hauek ikusten ditugu:

- Aurrekontuen superabita 1994an 259 milioi pezeta izatetik 1995ean 319 milioi pezeta izatera pasatu da.

- Biztanleko dirusarrerek eta biztanleko gastuek ehuneko 15 egin dute gora.

- Biztanleko finantza-zamaren gutxiagotze handia gertatzen da, ehuneko 21, zehatz esanda.

- Zerga-zama ehuneko 4 handiagotzen da.

- Zorpetze maila nabarmen gutxiagotzen da, ehuneko 21, eta zorpetzearen mugak ere gutxiagotze nabarmena du, ehuneko 4. Aurrezki garbia positiboa da eta ehuneko 17 handitu da.

- Inbertsioen indizeak gora egin du; langileria-aren indizeak, berriz, behera egin du.

- Azkenik, dirulaguntzekiko menpekotasuna ere handiagoa da, 1994 urtean ehuneko 37 izatetik 1995 urtean ehuneko 42 izatera pasatzen baita.

VII.4.3. Udalbatzen zorpetzea, 1995-XII-31n.

Toki Administrazioiko Departamentuak 496 toki entitatearen 95.XII:31ko zorpetzearen datuak eman dizkigu (226 udal, 236 kontzeju eta 34 mankomunitate).

Toki entitate hauek Nafarroako biztanleriaren ehuneko 95,4 egiten dute, hau da, 536.192 biztanle 1995eko urtarrilaren bateko biztanleriaren eroldaren arabera.

Entitate hauen zor bizia ondoren aipatzen dena da:

	(milioi pezetatan)			(pezetatan)
	Nafarroako Gov. zorra	E.F. kiko zorra	Zorra guztira	Zor per cápita
Udalak	5.603	12.259	17.862	34.933
Kontzejuak	222	245	467	24.426
Mankomunitateak	69	2.414	2.483	-
Guztira	5.894	14.918	20.812	

Aurreko ekitaldiarekin alderatu ahal izateko, 1994ko daturik ez daukagun entitateak kendu egin ditugu, eta horrela, finean aztertzeke daukagun datuak 225 udal, 229 kontzeju eta 31 mankomunitateri dagozkie, eta biztanleriari begiratzen

badiogu honek Nafarroako biztanleriaren ehuneko 95,3 egiten du.

Beraz, alderatzen ahal ditugun entitate hauen zor bizia ondoren esaten dena da:

	95ko zorra milioitan	Per cápita pezetatan	94ko zorra milioitan	Per cápita pezetatan
Udalak	17.831	34.883	18.506	36.204
Kontzejuak	460	24.589	487	26.059
Mankomunitateak	2.483	-	2.866	-
Guztira	20.774		21.859	

Aztertu den zorraren ehuneko 28 Nafarroako Gobernuarekikoa da, eta ehuneko 72 entitate finantzarioekikoa.

Alderaketa-koadro honetatik ateratzen ahal den lehen ondorioa da zor guztia gutxi gorabehera ehuneko 5 gutxitu dela; udalek ehuneko jaitsi dute, kontzejuak ehuneko 5 eta mankomunitateak ehuneko 13.

Lehenengo lerroaldean aipatu dugun udalen zorpetzearen gutxiagotzea dela kausa, beren zor "per cápita" pasatu da 36.204 pezeta/biztanleko izatetik 1994 urtean 34.883 pezeta/biztanleko izatera 1995 urtean, hau da, gutxiagotzea ehuneko 4koa izan da. Kontzejuetan zor "per cápita" ehuneko bost jaitsi da.

Ondoren toki entitate mota bakoitzaren mailegu-multzoa amortizatzeko gelditzen diren urtekopuruen batez-besteko aritmetiko haztatua ematen dugu, baita berauek sortzen duten korrituen batez-besteko tasa ere, bi kasuetan bereizten dugularik Nafarroako Gobernuarekiko zorra eta entitate finantzarioekikoa:

	Urteak		Korrituak	
	Nafarroako G.	E.F.	Nafarroako G.	E.F.
Udalak	10,15	10,52	2,04	9,91
Kontzejuak	10,49	8,58	2,97	9,51
Mankomunit.	8,00	6,38	3,25	9,52
Guztira	10,14	9,82	2,09	9,84

ZORRAREN BANAKETA ESQUALDEKA.

Ondoren dator udal eta kontzejuen zor biziaren banaketa eskualde geografikoen arabera, baita beren zorpetze "per cápita" 95-XII-31n ere:

Eskualdea	(milioi pezetatan)		Guztiaren %	Ehuneko gehi./gutxiag.	95eko biztanleria	(pezetatan)	
	94ko zorra, gutzira	95eko zorra, gutzira				94ko Per cápita	95eko Per cápita
Katauriko haranak	1.605	1.679	9%	5	24.703	57.138	66.195
Kantauriaurreko haranak	702	763	4%	9	23.023	34.149	34.165
Pirinioetako haranak	356	328	2%	(8)	8.928	48.249	40.402
Pirinioaurreko haranak	646	619	3%	(4)	12.717	39.431	50.260
Iruñerria	6.664	5.887	32%	(12)	269.575	25.178	24.246
Lizarraerria	1.031	876	5%	(15)	33.349	29.304	30.114
Ekialdeko erdialdea	1.306	1.393	8%	7	28.635	35.989	47.468
Erribera Garaia	2.396	2.174	12%	(9)	33.101	60.305	79.247
Erribera Beherea	4.287	4.573	25%	7	77.131	44.470	55.338
Gutzira	18.993	18.291	100%	(4)	511.162	34.341	38.101

• Koadro honetan nabarmen gelditzen den gauza da zorraren ehuneko 32 Iruñerriarena dela (biztanleriaren ehuneko 53 egiten duena), ondoren Erribera Beherea dator (ehuneko 25) eta ondoren Erribera Garaia (ehuneko 12).

• 1994 urtearekin alderatuz zorra, gutzira ehuneko 4 jaitsi da, 1994 urtean ez bezala, urte hartan 1993 urtearekin konparatuz handitu egin baitzen. Eskualde bakoitzean izan den aldaketa ikusten dugularik, Estellerriko alderdiko zorrak ehuneko 15 egin duela behera ikusten da, batez ere Lizarrako Udalarari esker. Iruñerrian, zorrak ehuneko 12 egin du behera, Iruñeko eta Barañaingo udalen zorpetzeak behera egin duelako.

Bestelako zorraren gutxiagotzeak: Erribera Garaian zorra ehuneko 9 jaitsi da, Sesma, Funes eta Andosillako udalen zorrak behar egin duelako;

Pirinioetako haranetan jaitsiera ehuneko 8koa izan da eta Pirinioaurreko haranetan ehuneko 4koa.

Zor gehikuntzei dagokienez, Kantauriaurreko haranetako zorrak gora egin du ehuneko 9.

Garrantziari jarraituz, ondoren Erribera Beherea eta Ekialdeko Erdialdea datoz, ehuneko 7ko gehikuntzarekin, hurrenez hurren.

Azkenik, Kantauriko haranek ere beren zorra handitu dute ehuneko 5.

ZORRAREN BANAKETA BIZTANLERIAREN ARABERA.

Bukatzeko zorraren banaketa biztanleriaren arabera nolakoa den ikusiko dugu, aurreko urtekoarekin alderatuz (udalak eta kontzejuak hartzen dira aintzat, bakarrik).

Biztanleria	(milioi pezetatan)			(pezetatan)	
	94ko zorra	95ko zorra	Aldaketaren %	94ko per cápita	95ko per cápita
0-5.000 biztanleren artean	8.500	8.644	2	46.133	46.912
5.000-50.000 biztanleren artean	6.266	6.200	(1)	43.171	42.718
50.000 biztanle baino gehiago	4.227	3.447	(18)	23.254	18.965
Gutzira	18.993	18.291	(4)	37.156	35.783

Koadro honetatik ateratzen dena da 5.000 biztanle baiño gutxiagoko udalak direla 1995ean gehien zorpetu direnak, ehuneko 2 1994ko datuekin alderatuz gero. Aitzitik, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalek beren zorra ehuneko 18 jaitsi dute.

5.000 biztanle baino gutxiago daukaten toki entitateek ehuneko 2 gehiagotu dute beren zorra, eta biztanleko zorrik handiena daukatenak dira, 46.912 pezeta, batez-bestekoa 35.783 pezeta. 5.000 eta 50.000 biztanle artean daukaten entitateek, beste aldetik, batez-bestekoa baino biztanleko zorra handiagoa daukate (42.718 pezeta/biztanleko). Azken horiek ere ehuneko 1 jaitsi dute beren zorra.

Azkenik Iruñeko Udala, aurreko urteko zorra gutxiagotzeaz gainera, 18.965 pezetako biztanleko zorra dauka, hau da, batez-bestekoa baino ehuneko 47 gutxiago. Datu hau Gobernuak, udalbatzak saneatzeko legeen arabera, egiten dituen ekarpenekin lotu behar da.

VII.4.4. Eginkizunen araberako sailkapenaren eta sailkapen ekonomikoaren arabera, 5.000 biztanletik gora dituzten udaletako aurrekontu-betetzeari buruzko analisia.

KPPOa 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udaletan ezartzearekin, entitate horien sailkapen funtzional eta ekonomikoa lortu ahal izan da. Sailkapen horrek adierazten digu zertarako eta zein helbururekin erabili diren entitate horiek eginiko gastuak.

Gastuen betetze eginkizunen araberakoa eta ekonomikoa
(mila pezetatan)

EGINKIZUNEN ARABERAKO TALDEA	%	Betetakoa guztira	Langileria gastuak	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Finantza gastuak	Ohiko transferentziak	Inbertsio errealak	Kapital transferentziak	Finantza aktiboak	Finantza pasiboak
43. Etxebizitza eta hirigintza	21	6.136.282	958.519	1.194.559	0	171.304	3.711.092	100.808	0	0
31. Gizarte segurtasuna eta babes	15	4.380.160	3.673.781	146.355	0	321.003	78.101	0	160.919	0
45. Kultura	11	3.138.764	481.721	1.239.290	0	527.779	718.223	26.750	145.000	0
42. Hezkuntza	9	2.752.229	1.469.791	720.438	0	407.323	153.555	1.122	0	0
01. Zor publikoa	9	2.521.724	1.374	468	829.669	4.484	43	0	0	1.685.687
22. Segurtasun eta babes zibila	8	2.312.274	1.948.529	273.475	0	3.389	86.881	0	0	0
12. Administrazio orokorra	8	2.220.544	807.231	1.113.939	0	59.552	207.293	0	32.529	0
44. Komunitatearen ongizatea	6	1.764.840	183.017	972.570	0	194.160	408.368	6.726	0	0
51. Oinarrizko azpiegiturak eta garraioa	5	1.348.192	174.620	373.964	0	235.397	564.211	0	0	0
32. Gizarte sustapena	3	788.959	523.679	153.318	0	37.374	74.589	0	0	0
61. Erregulazio ekonomikoa	2	646.786	352.812	272.559	5.735	2.963	12.717	0	0	0
41. Osasuna	2	480.865	293.217	156.482	0	1.541	29.625	0	0	0
11. Gobernu Organoak	1	269.489	159.303	97.434	0	12.055	697	0	0	0
72. Industria	1	175.481	9.129	9.592	0	10.719	142.517	3.523	0	0
81. O.A. adminin., merkat., ind. edo finan.		112.569	6.697	8.432	0	95.788	0	1.653	0	0
53. Nekazaritza azpiegiturak		85.017	6.605	14.271	0	396	63.745	0	0	0
71. Nekaz., abeltz. arrant.		82.274	20.187	61.917	0	0	171	0	0	0
46. Bestelako komu.- eta gizarte-zerb.		57.266	47	8.268	0	48.951	0	0	0	0
75. Turismoa		10.571	3.401	837	0	4.091	2.242	0	0	0
73. Energia		660	0	660	0	0	0	0	0	0
91. Adm. Publi. transfere.		180	0	180	0	0	0	0	0	0
Guztira		29.285.128	11.073.660	6.819.007	835.403	2.138.270	6.254.071	140.582	338.448	1.685.687
%			38	23	3	7	21	1	1	6

Koadro horretatik azpimarratu behar da gastuen ehuneko 21 –6.136 milioi pezeta– etxebizitza eta hirigintzarako erabiltzen direla; eginkizun horrek hartzen ditu toki entitate horien inbertsioen alderik handiena.

Garrantziaren arabera, segurtasun eta babes sozialerako egiten diren gastuak –4.380 milioi pezeta–, ehuneko 15 egiten dutenak. Sail horretan daude, beste batzuen artean, funtzionarioen pentsioak, Gizarte Segurantzari eta Bahituretxeei eginiko kotizazioak eta gizarte laguntzako zerbitzuak.

Gero Kultura eta Kirolaren alorrean eginiko gastuak datoz –3.139 milioi pezeta–, gastuen ehuneko 11 egiten dutenak. Gastu horiek ondasun arrunta eta zerbitzuen erosketan (2. kapitulu) eta inbertsioetan (6. kapitulu) islatzen dira, batez ere.

Hezkuntzari dagokion alorrean 2.752 milioi pezetako gastua dago, alegia gastuen ehuneko 9. Horren osagai nagusiak langileen gastuak eta ondasun eta zerbitzuen erosketak dira.

Zor Publikoari dagokionez, gastuaren ehuneko 9 da –2.522 milioi pezeta–. Horren jatorria dago banku-maileguen amortizazioetan eta mailegu horien korrituetan.

Segurtasun eta Babes zibilaren alorrean ehuneko 8 gastatzen da –2.312 milioi pezeta–. Alor horrek udaltzaingoa, landazainak eta babes zibila biltzen ditu. Logikoa denez, langileen gastua eta ondasun eta zerbitzuen erosketak dira alor honen osagai nagusiak.

Administrazio Orokorren gastuak –2.221 milioi pezeta– gastuen ehuneko 8 da eta barne hartzen ditu bulego eta egoitza orokorren gastuak, informazioa, erregistroa, aholkularitza juridikoa eta abar.

Komunitatearen ongizatean, 1.765 milioi peze- ta erabiltzen dira, gastuen ehuneko 6. Kontzeptu honek uren saneamendu eta hornidura gastuak, zaborren biltzea eta bide eta hilerrien garbiketa sartzan dira.

Oinarrizko azpiegitura eta garraioetarako, 1.348 milioi erabiltzen dira, gastuen ehuneko 5. Alor horrek hiri bideetan, urak hartu, bideratu eta banatzeko obretan, garraio bideak erostea eta abar hartzen ditu.

Azkenik, ondotik aipatuko ditugu gastuaren ehuneko txikiagoak biltzen dituzten zerbitzuak: Gizarte Sustapenak ehuneko 3 –789 milioi peze- ta-; Araupetze ekonomikoak eta Osasunak bakoitzak ehuneko 2 hartzen dute; gainerakoek ehune-

ko 1eko gastua baino gutxiago dute: Gobernu Organoak, Industria, Erakunde Autonomoak, Nekazaritza-azpiegiturak eta Nekazaritza, bestelako komunitate-zerbitzuak eta turismoa.

VII.5. EGINKIZUNEN ARABERAKO GALDE-SORTA.

Kontuen Ganbararen Nafarroako Sektore Publiko Lokalean duen Jarduera Planari jarraituz, 1995eko ekitaldiko kudeaketari buruzko galdesortari eginkizunen arabera ikuspegia eman nahi izan zaio. Galdesorta hori 5.000 biztanletik gorako udal guztiei bidali zitzairen, horiexek baitira Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezarri dutenak.

Galdesorta ondoko udaletara bidali zen:

Udala	Biztanleak
Altsasu	7.101
Ansoain	5.107
Barañain	19.759
Baztan	8.055
Berriozar	5.507
Burlata	15.833
Cintruénigo	5.457
Corella	6.470
Lizarrak	12.815
Iruña	181.776
San Adrián	5.261
Tafalla	10.343
Tutera	27.652
Atarrabia	8.710
Zizur Nagusia	7.152
Guztira	326.908

Galdesortak ondoko alorretako galderei buruzko erantzunak bildu nahi ditu:

- Izaera orokorreko zerbitzuak
- Hiritarren babesa eta segurtasuna
- Gizartearen segurtasuna, babesa eta sustapena
- Izaera sozialeko ondasun publikoak sortzea
- Dirusarreraren kudeaketa

Galdesorta bidali zaien udaletatik hamabostek erantzun dute, alegia, erantzunen indizea ehuneko 100 da.

Erreferentzia gisa udal horiek 1995eko urtarriaren batean zeuzkaten biztanle kopuruak hartu dira, Nafarroako biztanleriaren ehuneko 61.

VII.5.1. 5.000 biztanletik gorako udaletara bidalitako eginkizunen arabera galdesorta.

Jaso ditugun erantzunak aztertuta, ondotik emanen ditugu behar diren iruzkinak eta ondorioak, galdesortak berak zituen alorren arabera bilduta.

Datu horietatik atera daitezkeen ondorioei buruzko ñabardura batzuk aipatu behar dira, bai erantzun horiek, logikoa denez, ez direlako egiaz-tatu, eta bai alde nabarmena dagoelako udalen artean eta batez ere Iruñeko Udalaren eta gaine-rakoen artean. Alde horren ondorioz, batzuetan, hiriburuaren datuek lorturiko neurriak nahasten dituzte; hori dela eta, galdera batzuetan Iruñeko datuak beste alde batetik emanen ditugu.

A. IZAERA OROKORREKO ZERBITZUAK.

1. Gobernu organoak.

• Asignazioak:

Udal guztietan udalbatzako kideek bilkuretara joategatiko ordainsariak jasotzen dituzte, zinegotzi bakoitzak, batez beste, 545.528 pezeta urtean. Iruñeko eta Tuterako batezbesteko zenbateko horren gainera dago, 2.248.988 eta 802.058 pezetarekin zinegotzi bakoitzeko, hurrenez hurren. Gainerako entitateetan jasotzen diren zen-batekoak batezbestekoaren azpitik daude.

• Soldatak:

Bederatzi udaletan alkateak bere zerbitzuak dedikazio araubidean ematen ditu eta ordainsari bat jasotzen du horren aldera. Iruñean, zinegotzi batzuek ere ordainsariak jasotzen dituzte ematen dituzten zerbitzuengatik. Batezbesteko soldata, Iruña kenduta, 2.735.648 pezetakoa da. Iruñeko Udalak 46,3 milioi pezeta ordaindu zituen sodate-tan.

• Dietak

Udaletatik ehuneko 93k dietak eta bidai gas-tuak ordaintzen ditu. Kontzeptu hori dela eta ematen den batezbesteko gastua, Iruña kenduta, 444.853 pezetakoa da. Iruñak 7,9 milioi ordaindu zituen kontzeptu hori dela eta.

Asignazio, soldata eta dieten kontzeptuan urte batean biztanle bakoitzeko egiten den batezbeste-ko gastua 639 pezeta da. Gastu txikiena 389 pezeta biztanleko da eta handiena 1.136 pezeta biztanleko.

2. Administrazio Orokorrak

a) Urtean zehar egindako osoko bilkuren kopu-rua.

1995ean 131 ohiko osoko bilkura egin dira eta 157 osoko bilkura berezi. Batez beste 9 ohiko osoko bilkura eta 10 osoko bilkura berezi egin ziren. Udaletako ehuneko 67an osoko bilkura berezi gehiago dago ohiko osoko bilkura baino.

b) 1995ean egindako batzorde-bilerak

1.488 batzorde-bilerak egin ziren, batez beste 99 bilera udaleko. Kopuru handiena egin ziren udalean 200 bilera egin ziren; 36 bilera gutxien egin ziren udalean.

c) 1995ean zenbat dokumentu sartu eta irten ziren, erregistro liburuan idatzitakoaren arabera.

127.228 izan ziren erregistratutako dokumen-tuak, batez beste 8.482 dokumentu entitate bakoit-zeko. Biztanle bakoitzeko batez besteko doku-mentuen kopurua 0,39 izan zen; dokumentu gehien erregistratu ziren toki entitatean 1,18 izan ziren eta 0,06 dokumentu gutxien erregistratu ziren toki entitatean.

d) 1995ean kontabilizatutako dokumentuen kopurua.

187.997 kontabilitate dokumentu erregistratu ziren, batez beste 12.533 dokumentu udal bakoit-zeko. Hein handiena gastuei dagokie, ehuneko 53, ondoren dirusarrerei buruzko dokumentuak datoz, ehuneko 27, eta azkenik aurrekontuez kan-pokoak, ehuneko 20.

3. Kontratazioa

a) 1995ean indarra zuten laguntza teknikoko kontratuak.

1995ean laguntza teknikoko 262 kontratu zeu-den indarrean. Kontratu horiek 1.254 milioi pezeta egiten zuten. Kontratu bakoitzak, batez beste, 4,8 milioi egiten zuen. Udaletako ehuneko 80k erant-zun du. Ondokoek ez dute erantzun: Tafalla, Altsasu eta San Adrián.

Ondotik kontratazio mota horren laburpen koa-droa eman dugu:

Esleipen prozedura	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batezbesteko kontratua
Lehiaketa	38	%14	686.643.535	%55	18.069.567
Zuzena	224	%86	567.940.990	%45	2.535.451
Guztira	262	%100	1.254.584.525	%100	4.788.491

Koadroan ikus daitekeenez diru-zenbateko handiena duten kontratuak lehiaketa bidez esleitu dira, batez beste 18 milioi pezeta kontratu bakoit-zeko. Esleipen zuzena da kontratu gehienetan erabiltzen dena, baina beti zenbateko txikiagoko kontratuetan.

Esleipen organoari dagokionez, Osoko Bilkura da zenbateko handieneko kontratuak esleitzen dituen, guztizko diru-zenbatekoaren ehuneko 54 eta kontratuen ehuneko 14; Alkateak kontratuen diru-zenbatekoaren ehuneko 20 esleitu ditu, kontratuen ehuneko 21; Gainerakoak gobernu batzordeek eta eskuordetutako zinegotziek esleitu dituzte.

Kontratu horietatik ehuneko 83 Iruñari dagozkio.

b) 1995ean indarra zuten hornidura kontratuak.

Inkesta emandakoen ehuneko 40k erantzun digu. Hona hemen emaitzak:

Esleipen prozedura	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batezbesteko kontratua
Lehiaketa	14	%16	181.367.555	%44	12.954.825
Zuzena	76	%84	232.239.296	%56	3.055.780
Guztira	90	%100	413.606.851	%100	4.595.632

1995ean 90 hornidura kontratu zeuden indarrean. Kontratu horiek 414 milioi pezeta egiten zuten. Batezbesteko kontratua 4,6 milioi pezetako zen.

Lehiaketa erabiltzen da kontratuen ehuneko 14tan. Kontratu horiek guztizkoaren ehuneko 44 egiten dute. Kontratu bakoitzeko batezbesteko zenbatekoa 13 milioi pezetako da; horrek esan nahi du diru-zenbateko handieneko esleipenetan erabiltzen dela.

Esleipen zuzena kontratuetakoko ehuneko 84tan erabiltzen da. Kontratu horiek, diru-zenbatekoari dagokionez, guztizkoaren ehuneko 56 egiten dute. Prozedura horren bidez esleitutako batezbesteko kontratua 3 milioi pezetako da. Horrek esan nahi du diru-zenbateko gutxieneko esleipenetan erabiltzen dela.

Esleipen organoari dagokionez, Osoko Bilkura da zenbateko handieneko kontratuak esleitzen dituen, batez beste 14,3 milioi pezetako kontratuak; Alkatea dator ondotik, 5,5 milioi pezetako kontratuekin batez beste; gobernu batzordeek 2,7 milioi pezetako kontratuak esleitu dituzte.

Kontratu horietatik ehuneko 89 Iruñari dagozkio.

c) 1995ean indarra zuten zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak.

1995ean zerbitzu publikoak kudeatzeko 31 kontratu zeuden indarrean. 31 kontratu horiek 1.006 milioi pezetako zenbatekoa egiten zuten, eta batezbesteko kontratua 32,4 milioikoa zen. Galdesorta bidalitako udaletatik ehuneko 67k

erantzun du. Ondotik aurkezten dugu kontratu modalitate horren laburpen-koadroa.

Esleipen prozedura	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batezbesteko kontratua
Lehiaketa	21	%68	945.996.631	%94	45.047.459
Zuzena	10	%32	60.266.299	%6	6.026.630
Guztira	31	%100	1.006.262.930	%100	32.460.095

Ehuneko 68 lehiaketa bidez esleitu da eta zenbatekoaren ehuneko 94 dira; gainerako ehuneko 32an, zuzeneko esleipenaren prozedura erabiltzen da eta guztizko zenbatekoaren ehuneko 6 da. Lehiaketaren bidez esleituriko kontratuen batezbesteko diru-zenbatekoa 45.047.459 pezetako da eta zuzeneko esleipenaren bidez esleitutakoa 6.026.630 pezetako da.

Kontratuen ehuneko 23 Iruñekoak dira eta guztizko zenbatekoaren ehuneko 63 egiten dute.

Kontratazio organoari dagokionez, Osoko Bilkurak kontratuen ehuneko 58 esleitu du –zenbatekoaren ehuneko 91– eta kontratuaren batezbesteko diru-zenbatekoa 50,7 milioi pezetako da; Alkateak kontratuen ehuneko 13 esleitu ditu, alegia, diru-zenbatekoaren ehuneko 5; gobernu batzordeak ehuneko 29 esleitu du, alegia, diru-zenbatekoaren ehuneko 4.

Esleipen organoa	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batezbestekoa
Gobernu Batzordea	9	%29	45.258.617	%4	5.028.735
Alkatezaren Dekretua	4	%13	47.521.455	%5	11.880.364
Osoko Bilkurak	18	%58	913.482.858	%91	50.749.048
Guztira	31	%100	1.006.262.930	%100	32.460.095

d) 1995ean esleitutako obra kontratuak.

1995ean 100 obra kontratu esleitu ziren 3.012 milioi pezetatan. Kontratu bakoitzeko batezbestekoa 30 milioi pezetako izan zen. Galdesorta bidalitako udaletatik 80k erantzun du.

Ondotik ematen dugu kontratu mota horiei buruzko laburpen-koadroa.

Esleipen prozedura	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batezbesteko kontratua
Lehiaketa	35	%35	2.101.022.884	%70	60.029.225
Zuzena	62	%62	422.304.553	%14	6.811.364
Enkantea	3	%3	488.795.289	%16	162.931.763
Guztira	100	%100	3.012.122.726	%100	30.121.227

Kontratuen ehuneko 35 lehiaketaren bidez esleitu da; kontratatutako diru-zenbatekoaren ehuneko 70 egiten du.

Enkantea kontratuen ehuneko 3tan erabili da; kontratatutako diru-zenbatekoaren ehuneko 16 egiten du.

Kontratuen ehuneko 62 zuzeneko esleipenaren prozedura erabiliz egin dira; horiek kontratatutako diru-zenbatekoaren ehuneko 14 dira.

Zenbateko handiagoko kontratuak enkantearen edo lehiaketaren bidez esleitu dira; zuzeneko esleipena, ordea, zenbateko txikiagoko kontratuetan erabili da.

Iruñeko Udalak 62 kontratu esleitu ditu; kontratu horiek 1.401 milioi pezeta egiten dute.

Esleipen organoari dagokionez, batezbesteko zenbateko handiagoko kontratuak -58,4 milioi pezeta- Osoko Bilkurak esleitu ditu; Gobernu Batzordeak 36,6 milioi pezetako batezbesteko zenbatekoa duten kontratuak esleitu ditu; alkateak, ordea, batez beste 13,1 milioi pezetako kontratuak esleitu ditu.

e) 94-1-1etik 95-12-31ra bitartean bukatutako obra kontratuak, gutxienez 50 milioi pezetako esleipen bati dagozkionak.

Galdesorta bidalitako udaletatik ehuneko 47k 19 obra kontraturi buruzko informazioa bidali dute. Ondotik ematen dugu kontratu horiei buruzko laburpen-koadroa:

Esleipena	Zenbat	Hasierako prezioa	Behar-pena %	Esleipen prezioa	Desbid. %	Kitapena
Lehiaketa	16	2.807.580.058	%15	2.393.381.284	%8	2.592.920.458
Enkantea	2	1.320.408.076	%7	1.222.375.607	%16	1.418.176.681
Zuzena	1	90.309.895	%4	86.877.243	%3	89.679.465
Guztira	19	4.218.298.029	%12	3.702.634.134	%11	4.100.776.784

Esleipen moduari dagokionez, kontratu horiek ondoko koadroaren arabera burutu dira:

Esleipen prozedura	Zenbat	%	Esleipen zenbat	%	Batezb. zenbat.
Lehiaketa	16	%84	2.393.381.284	%65	149.586.330
Enkantea	2	%11	1.222.375.607	%33	611.187803
Zuzena	1	%5	86.877.243	%2	86.877.243
Guztira	19	%100	3.702.634.134	%100	194.875.481

Beraz, lehiaketaren sistema da gehien erabiltzen dena da, bai kontratu kopuruari dagokionez bai haien zenbatekoari dagokionez ere. Enkantea bi alditan erabili da diru-kopuru nahiko handiko kontratuetan. Zuzeneko esleipena erabili den kontratu bakarrak kontratu mota horretarako legeak ezarritako muga gainditzen du.

Ondoko koadroan konparatuko dugu esleipen sistema bakoitzean esleipeneko zenbatekoak ehuneko lizitazio aurrekontuaren aldean (lizitazio-baja) eta obraren amaierako kitapenaren aldean (desbideraketa) suposatzen duen aldaketaren ehunekoak.

Esleipena	Zenbat obra	%(baja) esleip./lizit.	%(desbider.) likid./esleip.
Lehiaketa	16	(%14,75)	%8,34
Enkantea	2	(%7,42)	%16,02
Zuzena	1	(%3,8)	%3,23
Guztira	19	(%12,22)	%10,75

Lizitazio bajaren ehunekoari dagokionez, lehiaketaren sistema azpimarratu behar da, gainerako sistemak baino baja-ehuneko handiagoa agertzen duelako. Aitzitik, esleipen zuzenean eta enkantean bajaren ehuneko txikiagoa da. Kitapen prezioak eta esleipen prezioak alderatuz gero, enkantea azpimarratu behar dugu, ehuneko 16ko handitzea erakusten duelako.

Kontratu hauetako babestestekoa agertzera ematen du obraren azken kitapenean gertatzen den igoerak ia erabat estaltzen dituela gertaturiko lizitazio-bajak.

Iruñean, zortzi obra burutu ziren, 1.701 milioi pezetatan, guztizkoaren ehuneko 40. Obra guztiak lehiaketaren bidez esleitu ziren eta batez besteko baja % 16,35 izan zen; kitapenaren batez besteko desbideraketa, berriz, % 6,73.

4. Erakunde deszentralizatuak. Hitzarmenak

Udal hauek 23 patronatu, 13 erakunde autonomo eta 4 elkarte publiko sortu dituzte. Horiek guztiak mankomunitateren batean sartu dira. Galdesorta bidalitako udaletatik % 67k hitzarmenen bat daukate beste entitate publiko edo pribatuekin zerbitzu bat edo beste jasotzeko.

5. Langileak

5.1. Udal multzo honetako langileak, beren estatutupeko edo lan harremanaren, honela banatu dira:

95-12-31ko egoera	Zenbat	%
Funtzionarioak	1.286	%57
Lan kontratatatu finkoak	358	%16
Aldi baterako lan kontratatatuak	531	%24
Kontratu administratiboa dutenak	80	%3
Guztira	2.255	%100

Langile guztietatik gehienak funtzionarioak dira, ehuneko 57. Enplegatu horietatik ehuneko 49 Iruñeko Udaleko langileak dira.

Biztanleriari dagokionez, batezbestekoa enplegatu bakoitzeko 145 biztanle da. Iruñean enplegatu bakoitzeko 157 biztanle.

Aurreko enplegatu horiek ondoko mailetakoak dira:

Mailak	Zenbat enplegatu	%
A maila	100	%6
B maila	219	%12
C maila	244	%13
D maila	929	%50
E maila	354	%19
Guztira	1.846	%100

Aurreko koadroarekiko ezberdintasunen arrazoia da ez digutela jakinarazi aldi baterako lan kontratatu askoren maila.

Ikusten denez D maila da enplegatu gehien biltzen dituenena, ehuneko 50.

5.2. Entitate bakoitzean alor administratibo eta kontabilitatekoan lan egiten duten langileak eta haien kostua aztertu dira. Emaitzak ondoko koadroan datoz:

	Zenbat	Kostua
Idazkaritza-Kontuhartzaitza	31	150.389.371
Gordailuzaintza-Diruzaintza	33	116.348.108
Administrari ofiziala	29	88.644.272
Administrari laguntzailea	46	121.271.319
Besterik	7	28.260.179
Guztira	146	504.913.249

Toki entitate horien tamaina ikusirik, logikoa da langile nahiko edukitzea alor hauetan, izan ere puntu erabakiorrak baitira kudeaketa ona egingo bada.

“Besterik” ataleko langileak, gehien bat, ekonomistak dira.

5.3. Karrerako funtzionario batek betetzen du udalbatzaren idazkariaren postua 13 entitatetan. Entitate batek aldi baterako funtzionario bat du eta beste batek lan kontaktudun langile bat.

Azterturiko ekitaldian, 1995, udalbatzaren idazkariaren batez besteko soldata gordina 5.654.498 pezeta izan zen.

Ondokoak dira aurreko soldataren osagaiak: oinarriko ordainsariak, guztientzat berdinak, eta osagarriak, lanpostu bakoitzari plantila organikoan esleituriko osagarriena arabera aldatzen direnak.

Udalbatzaren idazkari postuaren ordainsari osagarriak aztertu ditugu. Hona hemen emaitza:

Osagarriak	batezbesteko % soldataren g.	entitateen %
Lanpostua	%35	%100
Bateraezintasuna	%35	%13
Erabateko dedikazioa	%55	%33
Bestelako osagarriak	%12	%7
Batezbestekoa	%59	

Entitate guztietan udalbatzaren idazkariaren postuak lanpostuarengatiko ordainsari osagarria dauka; horren batezbesteko zenbatekoa oinarriko soldataren ehuneko 35 da.

Idazkariaren ehuneko 46k bateraezintasun osagarria, erabateko dedikazioaren osagarria edo biak dituzte; ehuneko 7k baizik ez du bestelako osagaririk.

Ondorioz, udalbatzaren idazkari postuak oinarriko soldataren ehuneko 59 egiten duten osagarriak dauka, batez beste. Batezbesteko horrek ezberdintasun handiko egoerak biltzen ditu: Iruñean % 125; Altsasun % 20.

Azpimarratu behar da entitateen ehuneko 54k ez duela bateraezintasun edo erabateko dedikazioaren osagarria ematen, nahiz eta horiek izan udalbatzaren idazkari lanpostua eskuratzeko eskatutako titulazioari eta dedikazioari hobekien egokitzen zaizkien osagarriak.

5.4. Udalbatzaren kontuhartzaile lanpostuek honako egoera agertzen dute:

Harreman mota	Zenbat	%
A mailako karrerako funtzionarioa	5	%33
B mailako aldi baterako funtzionarioa	2	%13
C mailako karrerako funtzionarioa	2	%13
Idazkari-kontuhartzailea	3	%20
B mailako lan kontratuduna	3	%20

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak xedatu zuen 10.000 biztanle baino gehiagoko jendeguneetako kontuhartzaileak A mailakoak izan behar d eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko jendeguneetakoak B mailakoak. Beste alde batetik, bi entitatetan C mailako karrerako funtzionario batek, propio gaitutakoa, betetzen du aldi baterako kontuhartzaile postua.

Kontuhartzaile lanpostuari dagokion batezbesteko soldata gordina 1995ean 4.713.762 pezeta da. Argi dago A mailako kontuhartzaileek -5.867.051 pezetako batezbesteko soldata gordina- ordainsari handiagoa jasotzen dutela B eta C

mailakoek baino -3.889.984 pezetako batezbesteko soldata gordina.

Ordainsari osagarriei dagokienez, batezbesteko osagarria hasierako soldataren ehuneko 50 da. Ezberdintasun agerikoak daude: 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan batezbesteko osagarriek hasierako soldataren ehuneko 72 egiten dute eta bateraezintasun edo erabateko dedikazioaren osagarria daukate, lanpostuaren osagarriaz gainera; 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, berriz, kontuhartzaileen batezbesteko osagarria ehuneko 33 da eta guztietatik batek baizik ez du bateraezintasun edo erabateko dedikazioaren osagarria jasotzen.

5.5. Langileen kudeaketari dagokionez, ondoko puntuak azpimarratu behar ditugu:

Entitateetako ehuneko 93k NAO-n argitaratzen dute plantila organikoa. Plantila organikoa urtero urtero onetsi, NAO-n argitaratu eta abenduaren 31rekin itxi behar da.

Plantila organikoa argitaratu duten entitateetatik ehuneko 79k 1995ean argitaratu dute, ehuneko 14k 1994an eta ehuneko 7k 1996an.

Entitate horietatik ehuneko 73k langileen presentzia kontrolatzeko sistemaren bat dauka; guztien ehuneko 46k sistema mekanizatua dute eta ehuneko 27k eskuzkoa. Gainerako entitateek ez dute inongo sistemarik langileen presentzia kontrolatzeko.

Entitate bakarra da, Iruña, lanera ez etortzeari buruzko estatistikak eginak dituena. 1995eko entitate horretako lanera ez etortzea ehuneko 6,87 da.

Entitate horiek, 1995ean, ondoko koadroan azaltzen diren langileen kontratazioak burutu zituzten:

	Altak	Bajak	Aldaketak
Langile finkoak	80	48	32
Aldi baterako langileak	942	1.000	(58)
Guztira	1.022	1048	(26)

Hau da, plantilaren gehikuntza garbia, langile finkoen handitzea, 32 pertsonakoa izan zen; horrek plantilaren ehuneko 2 egiten du; beste aldetik, 58 aldi baterako langile gutxiago dago.

6. Informatika

Entitate hauetako ia alor guztiak informatizatu daude, ondoko koadroan ikus daitekeenez:

Alorrak	Entitateak, %
Nominak	%87
Kontabilitatea	%100
Testuen prozesua	%100
Sarrera eta irteera erregistroa	%93
Bestelako alorrak	%73

Bestelako alorretan, beste batzuen artean, udal errolda, katastroa eta zerga-erroldak ageri dira.

Bitarteko informatikoak erabiltzen dituzten enplegatuen kopuruak ehuneko 62 egiten du.

7. Aurrekontua eta Kitapena

Galdesorta bidalitako udal guztietan, 1995eko Aurrekontua 1994ko abenduaren 31 baino beranduago onetsi zen, nahiz eta horixe den Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 274. artikulua ezarritako data.

Kontu Orokorrak Kontuei buruzko Batzorde Berezian ezarritako data, 1996ko ekainaren 1a, baino beranduago aurkeztu da entitateen ehuneko 87an. Galdesorta bidali den garaian, 1996ko ekaina, osoko bilkurek kontu orokorren ehuneko 47 onetsita zituzten. Gainerakoetan, izapidatzen ari ziren.

8. Aseguruak.

Entitate multzo honek kontrataturiko aseguruiei dagokienez:

	Udalak, %
Erantzukizun zibila	%100
Suteak	%100
Udalbatzako kideen istripuak	%87
Enplegatuen istripuak	%93
Ibilgailuak	%100
Bestelako aseguruak	%40

Emandako informazioaren arabera, oinarriko arriskuak ongi bilduta daude.

B. BABES ZIBILA ETA HIRITARREN SEGURTASUNA

Entitate guztietan, batean kenduta, udaltzaingoa dago. Ondotik ematen dugu alor horri buruzko azalpen koadroa:

	Zenbat	Urteko kostua	Udaltzain/batezbest.k.	Biztanle/kostua	Udaltzain bat zenbat bizt.
Udaltzaingoa (guztira)	546	1.558.523.757	3.402.890	5.793	599
Udaltzaingoa (Iruña)	352	1.248.954.023	3.548.165	6.871	516
Udaltzaingoa (gainerakoak)	194	309.569.734	2.920.469	3.548	748
Landazaintza	8	23.364.400	2.920.505	-	-

Basozainak	1	2.878.590			
Besterik	85	14.094.299	165.815	-	-
Guztira	645	1.598.860.686	3.422.448(*)	4.891	-

(*) Lizarra, Tafalla eta Tuterako udalek ez digute kostua jakinarazi; bai, ordea, udaltzainen kopurua. Beraz, udaltzain bakoitzeko kostua beren udaltzainen kopurua eta udaltzain horien kostua adierazi dizkiguten entitateei dagokie.

Hau da, udaltzainen ehuneko 64 Iruñean dago. Iruñekoek egiten dute, gainera, guztizko kostuaren ehuneko 68. Udaltzaingoaren biztanle bakoitzeko kostuaren eta "udaltzain bat/zenbat biztanle" atalaren adierazleak altuagoak dira Iruñean gainerako jendeguneetan baino.

"Besterik" atalean babes zibileko 80 bolondresak ere sartu dira.

Entitate guztietako udaltzainek gaueko txanda ere egiten dute.

Trafiko isunak	Zenbat	Kitatuta	Kobratuta	Kobratuta, %
Guztira	32.257	483.832.954	86.060.426	%18
Batezbesteko zenbatekoa	2.304	40.319.413	6.620.033	
Iruña	26.508	453.342.000	77.481.000	%17
%, guztiaren gainekoa	(%82)	(%94)	(%90)	
Gainerako udalak	5.749	30.490.954	8.579.426	%24
Batezbesteko zenbatekoak	442	2.771.905	714.952	

Aurreko koadroa udaltzaingoa daukaten entitateei dagokie. Batek izan ezik, Tafalla, gainerako guztiek likidaturiko eta kobraturiko isunei buruzko datuak eman dituzte. Azpimarratzekoa da kobrantzaren ehuneko baxua, batez, ere Iruñekoa, gainerako entitateetako kobrantza baino txikiagoa lortzen duelako.

	Zenbat pertsona	Zenbat entitate	Urteko kostua	Entitateko batez besteko kostua	Kostuak biztanleko	Jasotako dirulaguntzak	Tasak
Guztira	160	15	1.263.284.376	90.234.598	3.930	263.827.743	28.825.113
Iruña	51		929.023.578		5.111	70.875.049	16.817.528
Gainerakoak	109	14	334.260.798	23.875.771	2.393	192.952.694	12.007.585

Hau da, 160 enplegatu daude zerbitzu horietan, eta guztizko kostua 1.263,2 milioi pezetakoa da. Biztanle bakoitzeko zerbitzuaren batezbesteko kostua 2.393 pezetakoa da galdesortari erantzundako udaletan, Iruña kanpo utzita. Iruñeko biztanle bakoitzeko zerbitzu horien batezbesteko kostua 5.111 pezetakoa da. Entitate horiek jasotako dirulaguntzen ehunekoak zerbitzuaren kostuaren ehuneko 21 ordaintzeko balio du. Bildutako tasek ez dute kostuaren ehuneko 2 ere egiten.

Udalaren garabiak eramandako ibilgailuak:

	Zenbat ibilgailu	Kitaturiko tasak	Batezbesteko tasa	Eramandako ibilgailuak, batez beste
Guztira	12.556	86.347.384	6.877	1.794
Iruña	11.365	80.269.905	7.063	-
Gainerakoak	1.191	6.077.479	5.103	170

Hau da, Iruñeko Udalak eraman ditu ibilgailuen ehuneko 90 eta tasen ehuneko 93 berak likidatu ditu. Ibilgailua erretiratzeagatik Iruñean ordaintzen den tasa handiagoa da gainerako entitateetako baino. Zazpi entitatek beren garabiak dituzte, ehuneko 47.

Iruñak babes zibileko plan edo proiektu bat du eta prebentzio kanpainiak egiten ditu babes zibilaren eta segurtasunaren alorrean. Gainerako entitateetan ez da kanpainarik egiten eta ez dago babes zibileko plan edo proiekturik.

Bi entitatek adierazi dute idatzizko akordioak dituztela bestelako segurtasun indarrekin lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko.

C. SEGURATASUNA, BABESA ETA GIZARTE SUSTAPENA.

1. Gizarte zerbitzuak.

Azterturiko udal guztiek biztanleentzako gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzte. Ondotik ematen dugu zerbitzu horien egoerari buruzko azalpen koadroa:

Zerbitzua emateko moduari dagokionez, 2 entitatek beren baliabideekin ematen dute; udal horietako bik mankomunatuta dute zerbitzuaren atal bat; gainerakoek, ehuneko 6k, mankomunatuta ematen dute zerbitzu osoa.

Ondoko koadroan ematen da gizarte zerbitzu horiek egindako jarduera (jasotako eta aldeko txostena emandako eskaerak adierazi dira):

	Jasotakoak		Aldeko txostena emandakoak		Zenbat eskaera	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Jasotakoak mila biztanleko	Txostena eman. mila biztanleko
Osasuna	663	%5	151	%6	8	2
Etxebizitza	428	%3	85	%3	5	1
Drogamenpekotasuna	533	%4	14	%1	6	0
Langabezia	354	%2	260	%10	4	3
Famili arazoak	3.663	%25	306	%12	44	4
Ibiltariak	2.245	%15	43	%2	27	1
Laguntzen kudeaketa	2.593	%18	1.253	%49	31	15
Atención domiciliaria	1.114	%8	470	%18	13	6
Besterik	3.049	%21	0	%0	37	0
Guztira	14.642	%100	2.582	%100	176	31

Koadroan agertzen den informazioa 8 entitateri dagokie, alegia, galdesortari erantzundakoen ehuneko 53 baina populazioaren ehuneko 25.

14.642 eskaera jaso ziren. Horietatik 2.582tan –% 18– aldeko txostena eman zen. Eskaera ugarinak famili arazoei buruzkoa ziren, ehuneko 25.

Mila biztanleko 176 eskaera jaso ziren eta horietatik 31tan aldeko txostena eman zen.

2. Gizarte sustapena.

Ondotik ematen dugun koadroan udal hauetan diren gazte eta jubilatuentzako zentroak eta zaharrentzako egoitzak azaldu ditugu:

	Zenbat	Plaza zk.	Udalaren gastuak	Udalaren dirulaguntzak	Guztira
Gazteentzako zentroak			(1)	(2)	1+2
Publikoak	3		1.169.073	1.550.128	2.719.201
Pribatuak	5		800.000	265.000	1.065.000
Jubilatuaren egoitzak					
Publikoak	7		24.205.211	494.800	24.700.011
Pribatuak	11		0	3.150.000	3.150.000
Zaharrentzako egoitzak					
Publikoak	10	396	96.652.477	0	96.652.477
Pribatuak	8	612	0	2.500.000	2.500.000
Guztira	44	1.008	122.826.761	7.959.928	130.786.689

Hau da, gazteentzako 8 zentro daude, kasuan kasuko udalaren eskutik 3.784.201 pezeta jasotzen dituztenak; jubilatuentzako 18 egoitza daude, udalarentzat 27.850.011 pezetako kostua egiten dutenak; eta zaharrentzako 18 egoitza daude, 1.008 plaza dituztenak eta udalarentzat 99.152.477 pezetako gastua egiten dutenak.

3. Enpleguaren sustapena.

Ondoko koadroan datu hauek azaldu ditugu: galdesorta bidalitako udalek, enplegua sustatzeko bestelako entitateekin, kontratatutako pertsonen buruzko datuak, kontratu horiek udalei ekartzen

dien gastua eta kontratu horiek egiteagatik jaso diren dirulaguntzak:

Pertsona kontratatuak	Kostua	Dirulaguntza	Dirulaguntza, %
213	146.105.024	124.693.815	%85

14 entitatek burutu dituzte honelako lanak –ehuneko 93-; 213 pertsona kontratatu dira eta kostua 146 milioi pezetakoa izan da; 124,6 milioi pezeta jaso dira kontratu horiek egiteko dirulaguntza gisa, kostuaren ehuneko 85, alegia. Dirulagun-

tzak emandako erakundeak INEM (75 milioi) eta Nafarroako Gobernuak (49 milioi pezeta) izan dira.

Prestakuntza ikastaroak antolatzeari dagokionez, 6 entitatek –ehuneko 40– 33 ikastaro antolatu dituzte. 13 ikastaro horietan 455 pertsonak hartu dute parte eta 89,6 milioi pezetako gastua izan da. Gastu horren ehuneko 81 –72,2 milioi pezeta– dirulaguntzetatik etorri da

4. Gizartearen sustapena eta bergizarteratzea

Galdesorta egindako udaletatik 4k hitzarmen bat daukate bergizarteratze eta birlaneratzearen alorrean ari diren bestelako entitateekin. 8 hitzarmen sinatu dira eta horien bidez 42 pertsona

kontratatu; horren kostua 30,6 milioi pezetako izan da eta 22,8 milioi pezetako dirulaguntza –kostuaren ehuneko 75– jaso da horretarako.

D.GIZARTE IZAERAKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA.

1. Hezkuntza.

A) Ikastetxeak.

Ondoko koadroan datu hauek eman ditugu: udal hauetako ikastetxeak –bigarren hezkuntzakoak kenduta–, kasuan kasuko udalaren gastua ikastetxe horiek mantentzeko eta udalek jaso dituzten dirulaguntzak:

Ikastetxeak	Zenbat	Gastuak	Jasotako dirulaguntzak	Zenbat enplegatu	Enplegatuen kostua
Publikoak	58	1.250.578.930	341.344.519	252	664.512.968
Pribatuak	43	35.814.945	0	0	0
Guztira	101	1.286.393.875	341.344.519	252	664.512.968

Hau da, aztertutako 15 entitate horien artean, 101 ikastetxe dago, 58 publiko eta 43 pribatu. 1995ean udalek beren gain hartu duten gastua 1.286 milioi pezetako da; horretarako 341 milioi pezetako dirulaguntzak jaso dituzte, gastuen ehuneko 27, alegia. Ikastetxe horietan udalen enplegatu diren 252 langile aritu dira lanean. Langile horiek kostuak 664 milioi pezeta egiten du.

Adierazle gisa biztanle bakoitzeko egiten den gastua hartzen bada, ikastetxe publikoetan 4.528 pezetako gastua egin da biztanleko. Ratio hori 4.913 pezetako da Iruñeko kasuan, 14.289 pezetako Cintruénigon eta 10.401 pezetako San Adriánen. Ikastetxe publiko baten batezbesteko gastua 21.561.706 pezetako da. Ikastetxe bakoitzeko batezbesteko gastu hori 40.593.780 pezetako da Iruñeko kasuan.

Iruña kanpo utzi gero, ratioak nahiko aldatzen dira:

Adierazleak	Batezbestekoa	Iruña	Gainerakoak
Ikastetxe publiko baten batezbesteko gastua:	21.561.706	40.593.780	9.930.994
Biztanle bakoitzeko batezbesteko gastua	4.528	4.913	2.883
Ikastetxeen kopurua, guztira	101	47	54
Udalaren enplegatuen kopurua:	252	194	58
I. P. baten gastuetarako dirulaguntzak, %	%27	%32	%16

Hau da, Iruñak batezbestekoa nabarmen aldatzen du; batezbesteko ratioak Iruñekotik hurbil daude; gainerako entitateek balore ezberdinak dituzte.

B) Udal haurtzaindegia.

Ondotik haurtzaindegiari buruzko datu nagusiak eman dira.

Udalak	Langileak	Kostua	Dirusarrerak	Biztanleko kostua
9	167	487.889.958	241.026.606	2.023

Hau da, aztertutako udaletatik 9tan udalaren haurtzaindegia daude; horietan 167 enplegatuk egiten dute lan; Udalarentzat 488 milioi pezetako gastua egiten dute. Lortutako dirusarrerak 241 milioi pezetakoak dira; beraz, kostuaren ehuneko 49 berreskuratzen da. Biztanle bakoitzeko batezbesteko kostua 2.023 pezetako da.

2. Etxebizitzak eta hirigintza

A) Hirigintzaren plangintza

Udalen ehuneko 60k –9 udal– Hiri antolamendurako Plan Orokorra daukate; gainerako ehuneko 40ak –6 udal– Arau Subsidiarioak daukate.

Horien onesteari edo azken berrikusteari dagokionez, 8 entitatek azken bost urte hauetan egin dituzte; 4 entitateetan duela 5 urte baino gehiago egin ziren, bi entitateetan duela 10 urte baino gehiago eta udal batean –Tafalla– ez digute data-rik adierazi.

Hauek dira hirigintza alorrean diharduten langileak:

	Udalen kopurua	Zenbat pertsona	Kostua, guztira	biztanleko kostua
Berekia	5	66	280.783.806*	1.334
Kanpokoak	10	22		
Guztira	15	88		

(*) Kostua hiri entitateri dagokie, izan ere ez Tafallak ez Tuterak ez digute informazio hori eman.

Hau da, langileak dituzten eta kostuei buruzko datuak eman dizkiguten hiru entitateek 281 milioi pezetako kostua egiten dute, biztanle bakoitzeko 1.334 pezetako batezbesteko kostua. Alor honetan lanean ari direnak 66 dira.

10 entitatek kanpoko langileak dituzte; badirudi kanpoko langileak esaten dutenean ez direla kontsulta edo aholku jakin batzuei buruz ari.

B) Etxebizitza.

Hauek dira 1995ean bukatutako etxebizitzak:

Publikoak	1.742
Pribatuak	3.028
Guztira	4.770

Aipagarriena Zizur Nagusiko Udala da, izan ere etxebizitza pribatuen ehuneko 49 eta publikoen ehuneko 93 bertan egin direlako.

C) Obretarako lizentziak.

Ondokoak dira 1995ean eskaturiko eta emandako obretarako lizentziak:

Eskatutakoak	4.458 (*)
Emandakoak	4.231

(*) Datua 14 entitateri dagokie. Tafallak ez du erantzun.

1995ean obrako lizentziengatik eskuraturiko tasek 1.149 milioi pezeta egiten dute; horietatik 638 milioi pezeta –% 55– Iruñari dagozkio, nahiz eta bertakoak izan soilik emandako lizentzien ehuneko 17.

Entitate bakoitzeko batezbesteko zenbatekoak ondokoak dira: 318 lizentzia eskatu dira eta 302 eman dira; 77 milioi pezetako tasak ordaindu dira; 77 milioi horiek 37 bihurtzen dira Iruña kenduz gero.

1995ean, 8 entitatetan 175 zehapen espediente ireki ziren hirigintzaren alorrean eginiko arauhausteengatik –batez beste 22 espediente entitate bakoitzeko–. Zehapen horien zenbatekoa 29

milioi pezetakoa izan zen, 166.629 pezeta espediente bakoitzeko.

3. Parkeak eta lorategiak.

Azterturiko udaletako parke eta lorategien mantenimendua ondoko koadroaren arabera burutzen da:

Nola	Zenbat entitate	Langileak	Kostua	Kostua biztanleko
Bitarteko berekiak	9	103	255.510.882	952 pta.
Kanpoko kontratazioa	4		94.298.437	887 pta.
Guztira	12	103	349.809.319	1.130 pta.
Iruña		81	257.281.825	1.415 pta.
Gainerakoak	11	22	92.527.494	725 pta.

Iruñak zerbitzu hori bere langileekin, 199 milioi pezetako kostua, eta kanpoko langileekin, 58 milioiko kostua, ematen du. Iruñeko biztanle bakoitzeko batezbesteko gastua 1.415 pezetakoa da; gainerako udaletan, ordea, 725 pta.koa da.

Parke eta lorategien metro karratuei dagokionez, 10 entitatek erantzun dute. 10 entitate horiek 3.580.144 metro karratu dituzte, 12,46 m² biztanle bakoitzeko.

4. Argiteria publikoa.

	Guztira	Batez beste	Biztanle bakoitzeko
Energia elektrikoko kontsumoaren gastua (guztiak)	374.279.436	24.951.962	1.145
Energia elektrikoko kontsumoaren gastua (Iruña)	189.583.569		1.043
Energia elektrikoko kontsumoaren gastua (gainerakoak)	184.695.867	12.313.058	1.273
Argiteria publikoaren mantenimendua (nork bere bitartekoak)	9.639.862	2.409.966	192
Argiteria publikoaren mantenimendua (kanpoko bitartekoak)	231.976.694	23.197.669	871
Argiteria publikoaren mantenimendua (Iruña)	171.741.331		945
Argiteria publikoaren mantenimendua (gainerakoak)	69.875.225	5.375.017	481
Argiteriaren gastua, guztira	615.895.992	41.059.733	1.884
Argiteriaren gastua, guztira (Iruña)	361.324.900		1.988
Argiteriaren gastua, guztira (gainerakoak)	254.571.092	16.971.406	1.754

Kontsumoari dagokionez, batezbestekoarekiko desbideraketa handienak Cintruénigon, 2.468 pta., Tuteran, 1.690 pta., eta Barañainen, 448 pta., gertatzen dira. Batezbestekoak nabarmen aldatzen dira Iruña barne edo kanpo hartuta. Ez da berdin gertatzen biztanle bakoitzeko batezbes-

teko gastuari dagokionez, izan ere zenbateko hori ehuneko 11 handiagoa baita gainerako entitateetan.

Argiteria publikoaren mantenimendua 4 udalek egiten dute beren bitartekoak erabiliz eta 11k kanpoko bitartekoak erabiliz. Biztanle bakoitzeko batezbesteko gastua 192 pezeta da beren bitartekoak erabiltzen dituztenen kasuan eta 871 pezetakoa da kanpoko bitartekoak erabiltzen dituztenen kasuan. Tuteran, 1.224 pezeta, eta Iruña, 945 pezeta, balio horien gaineratik daude.

Guztizko gastua hartuta –energia gehi argite-riaren mantenimendua–, biztanle bakoitzeko gas-
tua 1.884 pezeta da, batez beste. Batezbesteko horretatik urrutien dauden udalak Cintruénigo, 3.118 pezeta, eta Tuteran, 2.914 pezeta, dira.

Energia Aurrezteko Planen dagokionez, 5 entitatek era horretako planen bat daukate.

5. Saneamendua, hornidura eta uren banaketa.

Zerbitzua era honetan ematen da:

	Zenbat entitate	%
Nork bere bitartekoekin	5	%29
Mankomunatuta	10	%59
Kanpoko kontratazioa	2	%12
Bestelakoak	0	%0

Jasotako erantzunei buruzko aurreko koadroan ikus daitekeenez, esan daiteke aztertutako udalen ehuneko 29k zerbitzua beren bitartekoekin ematen dutela, % 59k era mankomunatuan eta % 12k kanpoko kontratazioak erabiliz. Altsasuko Udalak bere bitartekoak eta kanpoko kontratazioa batera erabiltzen ditu eta Cintruénigokoak bere bitartekoak eta mankomunatuak erabiltzen ditu.

Hauek dira bildutako dirusarrerak:

– Ur hornidura: 418.851.141 pta. (6 entitate)

– Estoldak eta saneamendua: 106.659.612 pezeta (5 entitate)

Dirusarrera horiek zerbitzua beren bitartekoekin edo kanpoan kontraturiko bitartekoekin ematen dituzten udalei dagozkie. Ezin ditugu alderatu kostuari buruzko datuak eta dirusarrerei buruzkoak, kostuari buruzko datuak osatu gabe daudelako.

6. Zaborrak bildu, deuseztu eta tratatzea eta bideak garbitzea.

Zaborrak biltzeko zerbitzua era honetan ematen da:

	Zenbat entitate	%
Nork bere bitartekoak	0	%0
Mankomunatuta	14	%93
Kanpoko kontratazioa	1	%7
Besterik	0	%0

Jaso ditugun erantzunetatik esan daiteke 14 udalek era mankomunatuan ematen dutela zerbitzua; batek –Baztan– kanpoko kontratazioa erabiltzen du.

Bideetako garbiketa zerbitzuari dagokionez, honela ematen da:

	Zenbat entitate	%	Kostua, pezetatan	Kostua biztanleko, ptatan	Zenbat enplegatu
Nork bere bitartekoak	6	%40	23.684.597	725	14
Kanpoko bitartekoak	8	%53	688.654.833	2.657	126
Ez da egiten	1	%7	0	0	0
Guztira	15	%100	712.339.430	2.368	140

Hau da, aztertutako udalen ehuneko 40k –biztanlearen ehuneko 10– beren bitartekoekin burutzen dute bideen garbiketa; ehuneko 53k –biztanlearen ehuneko 88– kanpoan kontratatzen du zerbitzua hori; gainerakoek –udalen ehuneko 7– ez dute zerbitzua hori ematen.

Biztanle bakoitzeko kostua 725 pezetakoa da zerbitzua bere bitartekoekin ematen dituzten entitateen kasuan eta 2.657 pezetakoa zerbitzua kanpoan kontratatzen dutenentzat. Biztanle bakoitzeko kostuari dagokionez, alde nabarmena dago zerbitzua kanpoan kontratatzen dutenen artean ere; horien artean ondokoek izan dituzte kosturik handienak: Tuteran, 3.453 pezeta, Lizarra, 3036 pezeta, eta Iruña, 2758 pezeta. Kosturik merkeenak Atarrabian, 192 pezeta, eta Zizur Nagusian, 348 pezeta, ematen dira.

Zaborren bilketa selektiboa ondoko koadroaren arabera burutzen da:

	Zenbat	Entitateak %
Papera, kartoia	14	%93
Beira	15	%100
VBolumen handikoak	14	%93
Pilak	10	%67

Aztertutako udalek erabiltzen dituzten zaborte-
giei dagokionez:

	Udalak	
	Zenbat	%
Bereak	2	13%
Mankomunatuak	12	80%
Besterik	1	7%

Baztan eta Cintruénigok beren zabortegeiak dituzte; Altsasuk ez du ez berea den zabortegeirik ez mankomunatutakorik.

1995eko ekitaldian zaborrak kontrolik gabe botatzeagatik zabaldutako zehapen espedientei dagokienez, Tuterako Udalak hiru egin ditu arrazoi hori dela-eta. Zerbitzu hori entitateen ehuneko 93tan mankomunatuta dagoenez, espediente horiek mankomunitateek izapidatzen dituzte.

7. Kultura

Ondoko koadroan datu hauek eman ditugu: aukeratutako udalek eskaintzen dituzten kultur zerbitzuak, haien urteko kostua eta biztanle bakoitzeko kostua.

	Udalak		Urteko kostua pezetatan	Biztanleko kostua pezetatan
	Zenbat	%		
Liburutegia (1)	13	87%	30.189.390	107
Kultur etxea (2)	14	93%	477.963.731	1.536
Museoak (3)	3	20%	14.830.320	518
Musika eskola (4)	12	80%	225.939.918	800
Antzerkia (5)	2	13%	0	0
Zinema (6)	4	27%	1.090.791	125
Besterik (7)	1	7%	2.254.159	142
Guztira	15	100%	752.268.309	2.301

(1) Ez Corellak ez Tuterak ez dute liburutegi zerbitzurik eta Tafallak ez digu adierazi daukanaren kostua.

(2) Burlatak ez du zerbitzu hori ematen

(3) Burlata, Lizarra eta Tuterari dagokie. Tuterak ez digu kostu hori adierazi.

(4) Antsoain, Cintruénigo eta Corellak ez dute zerbitzu hori ematen

(5) Tuter eta Zizur Nagusiari dagokie; ez digute kostua adierazi.

(6) San Adrián, Tuter, Atarrabia eta Zizurri dagokie, nahiz eta kostuari buruzko datua Atarrabiak bakarrik eman duen.

(7) Burlatako ludotekari dagokio.

Zerbitzu hauek gehituta, biztanleko kosturik handiena Zizurrek du, 11.060 pezeta, ondoren Tafallak, 6.673 pezeta. Gasturik txikiena dutenak, berriz, Corellak, 592 pezeta, eta Cintruénigok, 668 pezeta.

Herri hauetan dauden talde kulturei buruz, 12 herri erantzun digute; horien arabera 143 talde daude eta 42,2 milioi jasotzen dituzte. Beraz, batezbeste, talde bakoitzak 295.638 pezeta jasotzen ditu.

8. Kirola.

Ondoren, aztertutako udalek dituzten udal kirol instalazioen zerranda emango dugu:

	Udalak	
	Zenbat	%
Kiroldegia	13	87%
Igerileku estaliak	4	27%
Estali gabeko igerilekuak	15	100%
Pilotalekua	14	93%
Futbol zelaia	15	100%
Atletismo pista	6	40%
Besterik (1)	3	20%

(1) Belodromoa, patinodromoa, beisbol zelaia

Ondoko koadroan adierazten dira kirol zerbitzuak emateko dauden langileak eta haien kostua:

	Zenbat	Urteko kostua	
Langile finkoak	44	87.573.113	(8 udal)
Aldi baterako langileak	38	31.525.291	(8 udal)
Bestelako langileak	40	4.894.000	(2 udal)
Guztira	122	123.992.404	(8 udal)

Udal hauek ez digute erantzun: Altsasu, Cintruénigo, Iruña, San Adrián, Tuter (ez digu kostua adierazi) eta Zizur Nagusia.

1995ean 220,4 milioi pezeta bildu ziren kirol zerbitzuak ematearen truke, tasa eta prezio publikoen kontzeptupean. Galdera honi ez diote erantzun ez Iruñak, ez Cintruénigok, ez San Adriánnek.

Kirol zerbitzuren bat emateko kanpoko kontratazioa erabiltzeari dagokionez, 6 entitatek erantzun dute, ehuneko 40. Hauxe da horren emaitza:

12 jarduera kontratatu ziren, 42.713.262 pezetako prezioan. Jarduera horien truke bildutako diruak 17.611.313 pezeta egin zuen. Badirudi erantzunek ez dituztela zuzen islatzen entitate horiek kontratatzen dituzten kirol jarduera guztiak.

E. DIRUSARREREN KUDEAKETA.

Ondotik aldizkako zerga bakoitzeko datu hauek eman ditugu: igorritako ordainagirien kopurua, kobratzeko aldiak eta 1995eko helbideratzen ehunekoak.

Zergak	Zenbat ordainagiri	Aldizkotasuna			Zenbat udal	Helbide- ratzeak, %	Kobratzen zailak, %
		U	S	B			
Hiri kontribuzioa	263.928	%20	%80		15	%71	%19
Landa kontribuzioa	25.538	%50	%50		10	%73	%19
Zirkulazio zerga	136.890	%100			15	%57	%28
Lizentzia fiskala	62.095	%31	%69		13	%68	%21
Orubeak	1.075	%100			3	%48	%8
Besterik	46.107	%28	%43	%29	7	%78	%31
Guztira	535.633	%42	%56	%2	15	%64	%20

U: Urteko; S: Sei hilero; B: Besterik

Hau da, azterturiko udalek aldizkako zergei dagozkien 535.633 ordainagiri igorri dituzte; horien ehuneko 64 helbideratuta daude. Ordainagiri horien ehuneko 45 Iruñeko Udalarenak dira.

Ordainagiri horien ehuneko 20 kobratzen zailak dira, ustez; zirkulazio zerga da kobratzeko arazorik handienak ematen dituenak, % 28.

Kobratzeko aldiei dagokienez, ordainagiriaren ehuneko 42 urtean behin igortzen dira kobratzeko; ehuneko 56 seihilabetero igortzen dira eta ehuneko 2k ez du aldizkotasun jakinik.

Igorritako ordainagiriaren ehuneko 49 hiri kontribuzioari dagozkio. Bi entitatetan ordainagiri berean hiri kontribuzioa, lizentzia fiskala eta landa kontribuzioa sartu dituzte.

Ondotik adierazi da aztertutako udaletatik zenbatak dituzten indarrean aipatzen diren ordenantzak:

Ordenantza fiskal orokorra	15
Lursailen balioen gehikuntzari buruzkoa	12
Zerga bereziei buruzkoa	11
Ibiak	14
Hirigintza lizentziak	15
Herrilurren probetxamendua	10

Aipatzekoa da gutxi direla kontribuzio bereziei buruzko ordenantzak indarrean dituztenak. Hala ere, 1996an, behar ziren neurriak hartu behar izan dira zergak ezarri eta antolatzeko, 1995eko martxoaren 10eko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen araberrako tasa eta kontribuzio bereziak exigitu ahal izateko.

1995eko abenduaren 31n, guztira 297 ordenantza ziren indarrean zeudenak, erantzun ziguten 14 udaletan.

Entitate bakoitzeko 21 ordenantza, batez beste.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak gai hori arautu berri du; beraz, aldaketa nabarmenak izan dira 1996an.

VII.6. UDALEN ETA KONTZEJUEEN EGOERA EKONOMIKOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK.

Aurrekontuen kitapenetik abiatuta, ondoko ratioak kalkulatu ditugu udal eta kontzeju bakoitzeko:

- Biztanle bakoitzeko ohiko gastuak (1-4 kapituluak)
- Biztanle bakoitzeko ohiko dirusarrerak (1-5 kapituluak)
- Biztanle bakoitzeko zergen bidezko dirusarrerak (1-3 kapituluak)
- Zorpetzearen muga
- Zorpetze maila
- Zorpetzeko gaitasuna, azken bi aldierazleen arteko aldea hartuta kalkulaturik.

Horiek guztiak kalkulatzeko udalen eta haien erakunde autonomoen kitapenei buruzko datuak sartu dira.

